



Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko?

(What faculties do the Autonomous Communities have to guarantee competition in the market?)



ALTZELAI ULIONDO, Igone

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Enpresa Zuzenbide Saila
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia

BIBLID [1137-1951 (2009), 18; 5-22]

Sarrera eguna: 2008.10.01
Oinarpen eguna: 2008.12.11

M

erkatuko lehiari dagokionez, Europar Batasunean badira Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren zenbait artikulua eta bestelako arau ugari eta beren aplikazioaz arduratzen da *Komisioa* (IV. Zuzendaritza orokorra). Espainiako Estatuan, berriz, aurreko lehiaren defentsako 16/1989 Legeak aldaketa partzial frango izan ondoren, berri bat eman da 15/2007 Legea, uztailearen 3.koa. Textuinguru honetan, ikus dezagun zeintzuk diren autonomia erkidegoek dituzten ahalmenak merkatuko lehia babesteko.

Giltza-Hitzak: Lehiaren zuzenbidea. Lehiaren defentsako organuak. Autonomia-erkidegoak. Eskumenak.

E

in lo que se refiere a la competencia en el mercado, existen en la Unión Europea determinados artículos del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea y muchas otras normas de cuya aplicación se encarga la *Comisión* (IV Dirección General). En el Estado Español, a su vez, tras muchos cambios parciales producidos en la anterior Ley 16/1989 de defensa de la competencia, ha quedado establecido la nueva Ley 15/2007, de 3 de julio. Veamos en este contexto de qué poderes disponen las comunidades autónomas cara a la protección de la competencia en el mercado.

Palabras Clave: Derecho de la competencia. Órganos de defensa de la competencia. Comunidades Autónomas. Competencias.

E

en matière de concurrence, l'Union Européenne compte plusieurs articles dans son Traité Constitutionnel, ainsi que de nombreuses normes, dont la Commission (Direction Générale IV) est chargée de veiller à leur application. Dans l'État espagnol, suite aux nombreuses modifications partielles de la Loi 16/1989 de défense de la concurrence, une nouvelle loi est promulguée, la Loi 15/2007 du 3 juillet. Nous abordons ici les compétences des Communautés Autonomes en matière de protection de la concurrence.

Mots Clé : Droit de la concurrence. Organes de défense de la concurrence. Communautés Autonomes. Compétences.

1. **Sarrera.** 2. **Deszentralizatorako oinarriak:** 2.1. Autonomia erkidegoen aldarrikapena. 2.2. Konstituzio Auzitegiaren erantzuna. 3. **Deszentralizatorako bidean lehen urratsa:** 3.1. Koordinaziorako irizpide eta mekanismoak. 3.2. Eskumen-gatazkak ebazteko prozedura. 4. **Deszentralizatorako bidean bigarren urratsa:** 4.1. Lehia babesteko ohiko ahalmenak. 4.2. Lehia babesteko ahalmen berriak. 5. **Ondorioak**

1. Sarrera

Lehia askea merkatuan oinarritutako sistema ekonomikoaren ardatza da. Dena den, ohartarazi behar da ekonomialari klasikoek *lehia perfektuaz* teorizatu bazuten ere, ekonomialari modernoek kontzeptu horren ordeztu (*workable competition*) *lehia inperfektua, praktikablea* edo *operatiboaz* mintzo direla. Merkatuak oligopolio edo monopoliorako joera du. Enpresek gutxi batzuen eskutan kontzentratu edo metatzeko joera dute eta hauek, modu zuzenean edo ez-zuzenean, eskaria eta eskaintza kontrola dezakete. Enpresa handiak merkatuan nagusitu eta menperatu nahian ibiltzen dira eta nagusitasunik ez dutenek, berriz, maiz lehia egiteari uzten diote nahiago izaten dutelako beren merkatuko jokabidea adostu (prezioak ezarri, merkatua partekatu, e.a.).

Arrazoi guzti hauengatik lehia babestu beharreko ondasun juridikoa da eta zuzenbidearen atal bat osatzen du: lehiaren zuzenbidea, ingelesez *Antitrust Law* edo *Competition Law* izenez ezagutzen duguna. Planteamendu hau, Europar Batasunari dagokionez, Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren (EEI) 81. artikuluan eta ondorengotan jasotzen da eta horietatik eratorritako arau ugari garatu izan dira. Espainiaren kasuan, berriz, esan daiteke xede horrekin lehen aldiz eman zela 16/1989 Legea, uztailaren 17koa, lehiaren defentsakoa¹ (aurrerantzean 16/1989 LDL, Lehiaren Defentsako Legea) gero 15/2007 Legeak, uztailaren 3koak, ordezkatu zuena (15/2007 LDL, Lehiaren Defentsako Legea)².

Egia da, lehenago izan zela beste lege bat, 110/1963 Legea, lehia murrizten duten praktiken errepresiorako zena³. Garai hartan Estatu Batuek *antitrust* lege bat egitera bultzatu zutelako Espainia. Baina inoiz ez zen lehia babesteko tresna baliagarria izan, legea ez baitzen garaiko errealitate ekonomikoaren baldintzetara

egokitzen. Ekonomia ideia protekzionistekin antolatua zegoen eta ez merkatu-askatasuneko ideekin. Lege hura egin zenean, Europako Erkidego Ekonomikoan (EEE) sartu ahal izateari ere so egin zitzaion. Baina errealitatean egoera oso bestelakoa zenez, Legeak ez zuen sekulan aplikazio seriorik izan, apaindurazko elementua izan zen batik bat.

Lege hark bi organo administratibori eman zien Estatuko lurralde osoan lehia babesteko eginkizuna: *Tribunal de Defensa de la Competencia* (aurrerantzean TDC) eta *Servicio de Defensa de la Competencia* (SDC). Baina oso espediente gutxi eta garrantzirik gabekoak burutu zituzten. TDC-k bere erabakietan inoiz ez zuen zigorrik ezarri 1988ra arte. Urte hartan lehen aldiz proposatu zion Ministroen Kontseiluari isun baten ezartzea. Ulertzekoa da, noski, garai hartarako baldintza ekonomikoak eta politikoak jadanik desberdinak baitziren. Espainia EEE-n sartuta zegoen eta merkatuko lehia babesteko ardura pizten hasia zen.

Gero 16/1989 LDL eman zen eta bere eduki substantiboan honako jokabide hauek arautu zituen, oro har edozein *antitrust* sistematan ohikoak direnak: a) jokabide kolusorioak (kartelak), akordio, erabaki eta jardura itunduak, b) merkatuko nagusitasun-egoerez abusu egiteak, c) lehiaren baldintzak desitxuratzen dituzten egintza desleialak, d) enpresa-kontzentrazioak eta e) enpresei emandako laguntza publikoak.

16/1989 LDL-aren eduki organikoari dagokionez, aurrekoaren egitura administratibo berbera ezarri zuen, berdin deituriko bi organoekin: TDC eta SDC. Beren izaera eta ezaugarriak dagokienez, TDC organo tekniko administratiboa zen, bere funtzioak modu independientean burutzen zituena. SDC-k instruitutako espedienteak ebazten zituen jokaera kolusorioek, merkatuko nagusitasun-egoeren abusuak eta egintza desleialek sorturiko lehia-murriztapenen inguruan (16/1989 LDL, 20.l. art.). SDC, aldiz, Ekonomia Ministerioan egokitutako organoa zen, hierarkia printzipioaren menpe zegoena. Bere Zuzendariak Ministerio horretan Politika Ekonomiko eta Lehiaren Defentsako Idazkari Orokor kargua zuen. Lehiaren aurkako portaerak ikertu eta espedienteak instruitzea zen bere egitekoa. EEI 81 eta 82. artikulua eta berengandik eratorritako zuzenbidea aplikatzeko prozedurak ere instruitzen zituen. Enpresa-kontzentrazioen kontrolean ere zeregina bazuen. Enpresa-kontzentrazioak SDC-ri jakinarazten zitzaizkion eta beronek adierazten zion Ekonomia

1. Ley 16/1989, de 17 de julio, de defensa de la competencia.

2. Ley 15/2007, de 3 de julio, de defensa de la competencia.

3. Ley 110/1963, de 20 de julio, de represión de prácticas restrictivas de la competencia.

Ministroari zeintzuk ziren, bere ustez, lehia oztopatu zezaketan kontzentrazio-egitasmoak, gero Gobernuak erabaki zezan. Gainera, bera zen ere, lehiatzeko gaitan atzerriko organoekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzeta eta harremanak zituena. Azkenik, aipatu behar da ere SDC-k azterketa, ikerketa, txostenak edota aholkularitza lanak egiten zituela gai hauei buruzko arau-ekimenetan parte hartuz. Ikus daitekeen bezala, SDC-ren funtzio-eremua oso zabala zen. Denboraren poderioz zabaltzen eta sendotzen joan zen (baita bere Zuzendariaren ahalmenak ere) TDC organo independentetaren kaltetan⁴.

Organo bi hauen izaera aipatu ondoren, aurrera egin aurretik, oharpen terminologiko bat egin nahi nuke *Tribunal de Defensa de la Competencia* (TDC) delakoaren inguruan. Esan beharra dago *Tribunal* izena erabat desegokia izan zela nahasketa sortu besterik egiten ez zuelako. Organo honen izaera ez zen jurisdikzionala administratiboa baizik. Hala ere, 1989ko legegileak *Tribunal* izen berbera mantendu zuen. Ez da ulertzen zergatik. Are gehiago, autonomia erkidegoek ere joera bera izan dute. Nahiz eta legez inolako obligaziorik izan ez, oro har Estatuko organoen izenak hartu dituzte eta, ondorioz, esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko organoaren izena *Lehiaren Defentsako Euskal Auzitegia-Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia* da. *Auzitegia* hitzak epailez osaturiko organo bat dakarkigu gogora. Baina ez da hala.

Argipen honen ondoren aurrera eginez, azpimarratu behar da lehia babesteko soilik agintari publiko zentralak ezartzea edota administrazio deszentralizatua izatearen inguruko eztabaida lege-egitasmoaren tramitazio garaian hasi zela. Baina orduan autonomia erkidegoei inolako eskumenik ez aitortzea erabaki zen, batere eskumenik ez, ez eta Estatuko organoei laguntza ematekorik ere. Beraz, TDC eta SDC-ren egitekoa lehiaren aurkako portaerak pertsegitzea zen, gertakariak autonomia erkidego batean, bitan edo gehiagotan edota Estatu osoan efektuak izanda ere. Bi organoen egoitza Madrilen zegoen eta beren eskumena Estatu osora hedatzen zen (16/1989 LDL, 20.II eta 31. art.).

16/1989 LDL indarrean sartu eta hilabete gutxiren buruan Euskal Herriko eta Kataluniako autonomia erkidegoek konstituziokontarakotasuneko errekurtsu bana jarri zuten. Konstituzio Auzitegiak (KA) errekurtsuen izapidetza onartu zuen eta metatu egin zituen, neurri handi batetan, bien edukiek bat egiten zutelako⁵. Esan daiteke, gertakari honek hasiera

eman ziola lehia babesteko egitura deszentralizatuaren bideari eta lan honen helburua bide hori noraino iritsi den ikustea da.

2. Deszentralizaziorako oinarriak

Esan bezala, Euskal Herriko eta Kataluniako autonomia erkidegoek konstituziokontarakotasuneko errekurtsu bana jarri zuten lehia babesteko administrazio deszentralizatua aldarrikatuaz. Ondoren ikusiko dugu zeintzuk izan ziren hauen oinarriko argudioak eta Konstituzio Auzitegiaren erantzuna.

2.1. Autonomia erkidegoen aldarrikapena

Aurkeztutako konstituziokontarakotasun-errekurtsuetan alderdiek zalantzarik gabe aitortu zuten Estatuari zegokiola lehiatzeko gaitan ahalmen *legegilea*. Eztabaidan jarri zuten, ordea, legedi hori aplikatzeko edo *exekutatzeko* eskumendun bakarra Estatuko administrazioa izatea, Estatu eta autonomia erkidegoen arteko eskumenen banaketa kontuan izanik. Auzi-jartzaileen ustez TDC eta SDC-ri eginiko funtzio-esleipenek beren eskumen-eremuak erasotzen zituzten, 16/1989 LDL-ren *exekuzioa* (edo aplikazioa) erkidegoei ere bazegokielako eta ez soilik aipaturiko organoei.

Espainiako Konstituzioko 149.1.artikuluan, Estatuaren eskumen eksklusiboen artean, ez da lehiaren defentsarik espresuki aipatzen. Badira gai batzuk nolabaiteko harremana dutenak baina honek zehazki ez. Esate baterako, 149.1.6.artikuluan *merkataritzako legeria* aipatzen da. Egia da, lehiari buruzko zuzenbidea *merkataritzako zuzenbidearen* atal moduan irakatsi ohi dela espainiar Estatuko unibertsitateetan eta hala agertzen dela esku-liburuetan. Baina egia da ere lehiaren babesa ez dela *merkataritzako zuzenbidea stricto sensu*. Zuzenbideko atal honen helburua ez da soilik harreman pribatuak ordenatzea. Bere objektua zabalagoa da. Izaera orokorreko beste interes batzuen babespena ere barne hartzen du. Modu laburrean esanda, bere helburua merkaturako sistema ekonomikoa iraun araztea da. Antzerako beste adibide bat Konstituzioko 149.1.13 artikuluan aurkitzen da. Honek erreferentzia egiten dio jarduera ekonomikoen planifikazio orokorrerako oinarri eta koordinazioari. Hemen,

4. ALONSO SOTO, Ricardo. "Derecho de la Competencia", Rodrigo URÍA; Aurelio MENEDEZ. *Curso de Derecho Mercantil I*, Ed. Civitas, Madrid, 1999; 282 e.o.

5. 2009/1989 eta 2027/1989 zenbakidun konstituziokontarakotasuneko errekurtsu metatuak.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkaturako lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22



agian, sar zitekeen lehiaren defentsako zuzenbidea. Baina, kasu horretan, zeri egingo lioke erreferentzia Estatuko eskumen eskusiboak? Noraino hedatuko litzateke? Zeintzuk izango liriteke bere mugak?

Galdera hauei erantzuteko, erkidegoko auzi-jartzaileek beren autonomia estatutueta jo zuten⁶ Konstituzioko 149.1 artikuluari interpretazio egokia eman nahian, espainiar sistema legala bere osotasunean aintzat hartuz (*intra legem* interpretazioa, hain zuzen ere). Bietan ezarrita dago autonomia erkidegoek barne-merkataritzan eskumen eskusiboa daukatela, beti ere, prezioen politika orokorra, Estatutuko lurraldean ondasunen zirkulazio askea eta lehia babesteko *legediaren* kalterik gabe. Ondorioz, autonomia estatutueta testuen interpretazioa izan zen, barne-merkataritzaren gaia, autonomia erkidegoei zegokiela eta aipaturiko azken gai hauek (prezioen politika orokorra, Estatutu osoan ondasunen zirkulazio askea eta lehia babesteko *legedia*) eskumen horren salbuespen edo mugak zirela.

Hauxe izan zen arrazoia esateko Estatuak lehiaren defentsan ahalmen *legegilea* zuela baina autonomia erkidegoei ere bazegokiela legedi horren *aplikazio administratiborako* ahalmena. Erkidegoen iritziz, eskumen exekutibo hauek barne hartzen zuten organo administratibo propioak izatea, legediak debekatutako egintzak eta kontrolpean ezartzen zituenak ikuskatzea edota baimen singularretako eskariak erabakitzea.

Bestalde esan daiteke, erkidego hauen antzera lehiaren babespen deszentralizatu aldarrikatzen dutenek beste sistema legal batzuetako ereduak ere aipatzen dituztela. Europako Erkidegoaren kasuan, bere helburua lehia faltsutu gabea izango duen merkatu bakarra sortzea da. Horretarako legezko sistema eta administratiboa eraiki dira, nazioarte mailakoa dena eta kide diren Estatueta araudi eta agintariekin batera bizi dena. Beste eredu bat Alemaniako kasua litzateke. Bertan bateragarriak dira lehiatzeko murriztapenen kontrako Estatuoko legea, bere lurralde osorako dena, eta lege horren aplikazio deszentralizatu, *Länder*-tako organo administratiboek burutzen dutena⁷.

Baina autonomia erkidegoek emandako arrazoen kontrako argudioak ere eman ziren.

Hala egin zuen prozeduran Estatuoko abokatu zenak eta baita, zentzu berean, boto partikularra sinatu zuten magistratuek. Hauen iritziz lehia babesteko eskumen *legislatiboa* eta *exekutiboa*, biak, Estatuarenak liriteke soilik, autonomia estatutuak ez dutelako autonomia erkidegoen alde inolako erreserba espresurik. Baieztapen hau eusteko, adierazi zuten *barne-merkataritza* bai zela autonomia erkidegoei eslelitutako eskumena baina ez hala *lehiaren defentsa* eta beren iritziz ezinezkoa zen ulertzea lehiaren babesa *barne-merkataritza* kontzeptuaren barruan zegoenik. Bestalde, arauen helburura (teleologiara) ere jotzen zuten. Horretan oinarrituaz esaten zuten autonomia erkidegoei eslelitutako eskumenera multzotik lehiaren babeserako *legedia* espresuki kanpoan geratu zela eta kanporatze horretan zeudela, baita ere, *exekuzioaren* inguruko eskumenak. Estatuoko abokatuak eta *dissenting opinion* sinatu zutenek *legislazio* eta *exekuzio* kontzeptuak bereizi ahal izatea ukatzen zuten. Beraientzat erreferentziazko datua lehiaren defentsako *legedia* zen eta, horrekin batera zegoen baita *aplikazio administratiboa* ere.

2.2. Konstituzio Auzitegiaren erantzuna

Konstituzio Auzitegiak 1999.11.11.an epaia eman zuen⁸. Estatuoko abokatuak eta *dissenting opinion* sinatu zutenen ustearen kontra, deklaratu zuen eskumen *legislatiboa* eta *exekutiboa* bereizgarriak zirela, alegia, eskumen *legegileak* ez zuela *aplikazio administratiboa* bere eremuan barne hartzen. Konstituzio Auzitegiak aitortu zuen Estatuari zegokiela ekonomiaren zuzendaritza orokorra, baina autonomia erkidegoek lehiaren defentsarako eskumen *exekutiboak* zituztela, beren autonomia estatuen arabera⁹. Ondorioz, lehiaren babesa ez zuen Konstituzioko 149.1 artikuluan aipatutako eskumen eskusiboen artean kokatu.

Konstituzioko 149.1 artikulua interpretazio integratzailea edo osatzailea egin zuen, autonomia erkidegoetako estatutuak ere aintzat hartuz. Zentzu horretan, azpimarratu zuen estatutu horietan esandakoa, alegia, autonomia erkidegoek *barne-merkataritzan* eskumen eskusiboa zeukatela eta lehiaren defentsan ahalmen *legegilea* horretxan salbuespena zela.

6. Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 10.27.art. eta Kataluniako Autonomia Estatutua, 12.1.5.artikula.

7. *Gesetz gegen Wettbewerbsbeschränkungen* (aurrerantzean *GWB*) §§ 48-49. KLAUE, Sigfried, "§§ 48-49 *GWB*", Ulrich IMMENGA/Ernst-Joachim MESTMÄCKER, *Wettbewerbsrecht. GWB Kommentar zur Deutschen Kartellrecht*, 2. alea, C.H. Beck, München, 4. arg., 1557-1566.

8. AK 11.11.1999, 2009/1989 eta 2007/1989 kasuak, Gobierno Vasco - Consejo Ejecutivo de la Generalitat de Cataluña, BOE 300. zenb., 1999.12.16.koa.

9. Lehenago Alemaniako kasuari aipamen egin diogunez, hemen ere azalpen batzuk gehitu daitezke. Alemaniako Konstituzioko 74.1.16. artikulua, Estatu federala eta *Bundesländer* artean konkurrenteak diren eskumen legegileen artean, lehiaren gaia aipatzen du. Printzipioz, gai honi buruzko legeak egin ditzakete bai Estatu federalak bai eta *Länder*-ak ere. Baina lehenengo legea Estatuak egin ezker, *Länder*-ek ezingo lukete legerik egin. Hala gertatu izan da. Lehenengo legea Estatu federalarena izan zen 1958.ko *GWB*. Ondorioz, gai hau *Länder*-en eskumen legegileetatik geratu da.

Hortik ondorioztatu zuen, beraz, Estatuari zegokiola *antitrust* gaietan *legeak egitea*, baina autonomia erkidegoena zela legedi hori aplikatu edo *exekutatzeko* eskumena, hori bai, beti ere beren lurraldetar eremu barruan (ez handik kanpo) efektuak zituzten *antitrust* egintzak ikuskatzeko izanik.

Europar Erkidegoko arauak ere gogora ekarri zituen Espainiako 16/1989 LDL-aren iturri inspiratzaile izan zirela gogoraraziz. Azpimarratu zuen 16/1989 LDL-aren helburua zela merkatuan lehia nahikoaren existentzia bermatzea (*workable competition*) eta interes publikoaren kontrako edozein erasotatik babestea. Beraz, bere iritziz, legeak *merkatua* aipatzen zuenean ez zuen merkatua termino absolututan adierazi nahi eta *lehia* aipatzean lehia eraginkorra (*efficient competition*) esan nahi zuen.

Ekonomia nazionalaren bateratzeari buruz, iritzi zion merkatu bakar baten existentzia edota jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorra koordinatzeko Estatuaren eskumenak ez zirela arrazoi nahikoak autonomia erkidegoei zegozkien eskumenak aitortzea galarazteko. Aipaturiko aspektu horiek autonomia erkidegoen eskumen *exekutibo*en mugak zeintzuk ziren adierazten zuten.

Guzti horregatik, inkonstituzional deklaratu zituen 16/1989 LDL-ko zenbait artikuluren zati batzuk, funtzio *exekutibo*ak Estatuako organo zentralen esku lagatzen zituztenak. Deusez deklaratu zituen. Baina, bitxia bada ere, deuseztasunaren efektua geroratu egin zuen, Estatuako lege baten bidez agintari *antitrust* estatal eta autonomikoak koordinatzeko irizpideak finkatu arte eta autonomia erkidegoek eskumen hauek egikaritzeko beharrezko zituzten baliabideak eduki arte. Ondorioz, Estuari esleitu zion agintari estatal eta autonomikoen artean koordinazioa, lankidetzeta eta informazio-trukaketa ahalbidetzeko tresnak ezarriko zituen legea egiteko lana.

Konstituzio Auzitegiaren epaia momentu delikatu batean iritsi zen, hain zuzen 16/1989 LDL berritzeko prozeduraren amaieran (52/1999 Legea, 1999.12.28.koa izango zena). Gertakari horrek bere ondorioak ekarri zituen. Hala nola, espainiar legegileak Konstituzio Auzitegiaren agindua betetzeko, Bigarren Azken Xedapena erantsi behar izan zion aipaturiko legerari. *In extremis* sarturiko xedapen horrek esaten zuen Gobernuak, 2000.10.1 baino lehen, Diputatuen Kongresuari lege-egitasmo bat aurkeztu beharko ziola, Estatu eta autonomia erkidegoen arteko

eskumenen banaketa koordinatzeko irizpideak ezarriko zituena, lehiaren babespen gaietan.

3. Deszentralizaziorako bidean lehen urratsa

Legegileak Gobernuari 2000.10.1-eko epemuga jarri baldin bazion ere, ez zuen bete. Mugaeguna iragan ondoren, Kataluniako talde parlamentarioak 2000.20.19.an interpelazio urgente bat aurkeztu zuen Gobernuari eskatuz ezagutzera eman zitzala instantzia administratibo desberdinen artean lankidetzeta eta koordinazioa egiteko mekanismoak. Azkenean, atzerapenarekin, Gobernuak lege-egitasmoa aurkeztu zuen 2001eko uda hasieran. Gogoratu garai hartan Alderdi Popularra zela Gobernuan zegoena eta Kongresuko eserlekuen gehiengoak zeukala. Ondorioz, lege-egitasmoaren tramitazioak ez zuen inolako oztoporik izan eta hala eman zen 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, lehiaren defentsa gaietan Estatu eta autonomia erkidegoen arteko eskumenak koordinatzen dituen (aurrerantzean 1/2002 KL, Koordinazio Legea)¹⁰. Baina lege honekin bete al zen benetan Konstituzio Auzitegiak emandako deszentralizazio-agindua?

Ohi bezala, 1/2002 KL-ko zioen azalpenean adierazten dira zeintzuk izan ziren legea egitearen arrazoiak baina, behin eta berriz, deszentralizazioaren mugak azpimarratzen saiatzen da. Esate baterako, azpimarratzen ditu: ekonomia nazionalaren batasuna, merkatu bakarra, Estatuak ekonomia jarduera orokorra planifikatzeko duen ahalmena, jarduera ekonomikoa egikaritzeko oinarriko baldintzen berdintasun printzipioa, Espainiar lurralde desberdinen arteko oreka ekonomikoa, pertsonen zirkulazio eta establezimendu askatasuna, Estatu osoan ondasunen zirkulazio askea, e.a. Guzti horrekin badirudi, kasu honetan, Konstituzio Auzitegiak bere epaian emandako manamendua oso modu murriztuan interpretatzeko jarrera izan duela legegileak.

2.1. Koordinaziorako irizpide eta mekanismoak

1/2002 KL-ak bost artikuluko besterik ez dauzka eta hauen atal desberdinetan garatzen da lehiaren defentsari buruzko eskumenen banaketa. Lehenengo artikulua *konexio puntuak* ezartzen

10. Ley 1/2002, de 21 de febrero, de coordinación de las competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de defensa de la competencia, BOE núm. 46 de 22.02.2002.

ditu, Estatuia eta autonomia erkidegoen artean eskumenen egikaritzea mugatzeko¹¹. Estatuak du ahalmen *legegilea* eta autonomia erkidegoei dagokie egikaritze *exekutiboa*. Baina Estatuak beretzat gordetzen ditu zenbait funtzio *exekutibo* ere. Horregatik konexio-puntuaren zeregina da, kasu bakoitzean, eskumen *exekutiboaren* titularraren nor den argitzea. Beste era batetan esanda, lehenengo artikulua saiatzen da finkatzen zein kasutan dagokion Estatuako administrazioari 16/1989 LDL aplikatzea.

Lehenengo atalean (1.1 art.) esaten da, Estatuari dagokiola eskumen *exekutiboak* egikaritzea jokabide kolusorioek, nagusitza-egoeraren abusuek eta egintza desleialek lehiaren baldintzak eremu supra autonomikoan edo merkatu nazionalen desitxuratu ahal izateko modukoak baldin badira (i), nahiz eta eskumen horiek autonomia erkidegoen batetako lurraldean egikaritu behar izan (ii)¹².

Hemen definitutako oinarritzko irizpidea (i), merkatuko jokabideek sor ditzaketen efektuetan oinarritzen da eta oso ohikoa da lehiaren zuzenbidean¹³. Baina badu bitxikeria bat. Testu honek “efektu *supra-autonomikoak*” eta “merkatu nazional osoan eragina izatea” baliokidetzat hartzen ditu, nahiz eta gauza bera ez izan. Efektu *supra-autonomikoak* izateak ez du esan nahi nahitaez efektu horiek merkatu nazional osoan eragina izan behar dutenik. Egon daitezke agente ekonomikoaren jarrerak geografikoki bi autonomia erkidegotan efektuak dauzkatenak baina merkatu nazional osoan eragina izateko adinekoak ez direnak. Alderantziz ere gerta daiteke, alegia, jarduera zehatz bat autonomia erkidego batetan efektu intra-autonomikoak dituenak, merkatu osoan eragiteko gai izan daiteke¹⁴. Hala eta guztiz ere, espainiar doktrinaren gehiengoak ez ditu bi egoera hauek bereizten. Gauza bera diren interpretazioa egiten du eta ulertzen du autonomia erkidegoaren eskumena izan dadin

merkatuko portaeraren efektu posibleak bere lurraldetar eremura mugatu behar dutela soilik. Efektuek eremu hori gainditu ezker, eskumena Estatuako agintariena dela¹⁵.

Bestalde, bigarren atalean (1.2. art.) aurrekoari bigarren irizpide bat gehitzen zaio: lehiaren aurkakotzat kalifikatzen da portaera batek merkatu nazionalaren osotasunean eragiteko ahalmena izatea, nahiz eta efektuak oraindik autonomia erkidego bakar batetara mugatu. Beraz, irizpide osagarri honekin, lehen aipaturiko efektuaren zentzua asko zabaltzen da¹⁶.

Gero, agente ekonomikoaren jokabidearen efektuen irizpideari beste bigarren konexio puntu bat gehitzen zaio, alegia, eskumen *exekutiboa* egikaritzen den lurraldearena (ii). Demagun, adibidez, santzio edo zehapen baten exekuzioa autonomia erkidego batetan kokatzen dela, bertan dagoelako merkatuan nagusitasuna izateaz abusu egin duen enpresaren egoitza. Gertakari horrek ez du argitzen nori dagokion erabakia hartzea. Erabakia hartuko du debekatutako jokabideak sortutako efektuen arabera dagokion agintariak. Beraz, ez da ulertzen bigarren irizpide hau eta ez du laguntzen aurreko konexio-puntua argitzen. Ez du zehaztasunik gehitzen, nahasmena eta segurtasun juridikorik eza ekartzen du.

Oinarritzko konexio-puntu hauekin batera beste erregela osagarri batzuk ere badaude, organo estatal eta autonomikoaren eskumenak zehazteko balio dutenak. Erregela hauen multzo nagusia lehen artikuluan bertan jasotzen da eta hauen artean nabarmentzen da bosgarren atala, edozein kasutan Estatuari dagozkion funtzioak aipatzen dituenak. Funtzio horiek honako hauek dira:

– enpresa-kontzentrazioak eta enpresei emandako laguntza publikoak kontrolatzea;

11. Gai honi buruzko lan zabala, Xavier ARZOZ, *Comunidades autónomas, puntos de conexión y defensa de la competencia*, Revista Vasca de Administración Pública, 64, 2002, 11-71.orr. (lk. 14. Orr.)
12. Legezko testuaren bertsio originala hauxe da: “... corresponde al Estado el ejercicio de las competencias ejecutivas respecto de aquellas conductas colusorias, abusos de posición de dominio y actos desleales que pueden alterar la libre competencia en un ámbito supra-autonómico o en el conjunto del mercado nacional, aun cuando el ejercicio de tales competencias haya de realizarse en el territorio de cualquiera de las Comunidades Autónomas”.
13. Honen adierazle dira adibidez Europar Erkidegoaren eremuan, gai honetan jadanik klasikoak diren epaiak: Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia, 1988.09.27.ko Epaia, 89, 104, 114, 116, 117 eta 125/129/85 Kasu metatuak, *Ahlström eta beste batzuk c. Europako Batzordea (egur-pasta)* (1988ko Bilduma, I, 5193. orr.) eta Europako Erkidegoetako Lehen Auzialdiko Auzitegia (EELAA), 1999.03.25.eko Epaia, T-102/96 Kasua, *Gencor Ltd. c. Europako Batzordea* (1999ko II Bilduma, 753. orr.). Aipatzekoa da ere Europako Batzordearen dokumentu hau: *Directrices relativas al concepto de efecto sobre el comercio, contenido en los arts. 81 y 82 del Tratado CE* (DOCE, C 101, de 27.4.2002) (<http://curia.europa.eu>)
14. Zentzu honetan ere, klasikoak dira Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) emandako zenbait epai. Hauetan Estatu kide batetan gertatutako jarduerak merkatu komun osoan eragina zuela deklaratu zuen. Kartelen inguruan aipatuko ditugu 1972.10.17ko Epaia, 8-72 Kasua, *Vereeniging Van Cementhandelaren (zementuaren holandar kartela)* (1972ko Bilduma, 977. orr.) eta 1975.11.16ko Epaia, 39-75 Kasua, *Robert-Gerardus Coenen eta beste batzuk c. Sociaal-Economische Raad (Belgikako paper margotuko ekoizleak)* (1975ko Bilduma, 1547.orr.). Nagusitza egoerazko abusuak buruz, ikus 1975.11.13ko Epaia, 26-75 Kasua, *General Motors Continental c. Comisión* (1975ko Bilduma, 1367. orr.) edota 1975.12.16ko Epaia, 40-48, 50, 54-56, 111, 113 eta 114-75 Kasuak, *Suiker Unie eta beste batzuk c. Europako Batzordea* (1976ko Bilduma, 1. orr.) (<http://eur-lex.europa.eu>)
15. Interpretazio honen aurka, Xabier ARZOZ (2002) 50.orr.
16. Alemaniako legeak eskumenak esleitzeko irizpide errazagoa dauka, soilik lehiaren aurkako efektuetan oinarritzen dena (§ 48 *GWB*). Ez du bestelako printzipiorik aintzat hartzen, esaterako merkatu nazionalaren osotasuna. Gainera, merkatuaren batasuna Europar Batasun osorako ere aldarrikatu ahal den zerbait da, baina ez da hala egiten.

– enpresen arteko zenbait akordio-kategoria zehapenetik salbuesteko erreglamenduak egitea;

– lehiaren defentsa gaietan, atzerriko beste agintarien aurrean edota nazioarteko erakundetan ordezkaritza izatea;

– EEI 81 eta 82. artikulua eta hauengandik eratorritako zuzenbidea aplikatzea.

Gainera, erregela hauei lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa gehitu behar zaie. Bertan esaten da 16/1989 LDL-ak zenbait artikulutan TDC eta SDC-ri egindako aipamenak autonomia erkidegoetako organoei egindakotzat ulertu behar direla, beti ere artikulua horietan araututako ahalmen administratiboak eta prozedurak autonomia erkidegoen eskumenekoak diren jokabideei buruzkoak direnean, 1/2002 KL-ko lehen artikulua araberak. Horretarako 18/1989 LDL-ko artikuluen zerrenda luze bat adierazten da, guztira 30 artikulua dituena¹⁷. Lehiaren defentsari buruzko atal desberdinak arautzen dituzten artikulua dira: debekatutako jokabide singularren baimena, intimazioak, zehapeneko isunak, isun koertzitiboak, datuak ez emateagatiko zehapenak, ikerketa eta ikuskapena, egoitzen ikerketa, prozeduren hasera, espedienteen instrukzioa, kautelazko neurriak edota espedienteen ebazpena. Ikus daitekeenez, gai guzti hauek zehapeneko prozedurarekin zerikusia duten gaiak dira.

Hala ere bada zerrenda horretan bereizi daitekeen artikulua bat: 31. artikulua. Honen edukia SDC organoaren funtzioak finkatzea da. Ondorioz, organo autonomikoek SDC-ren funtzioak ere egikaritu ahal izango dituzte, beti ere ezarritako eskumen esparruaren barruan. Honela, aipaturiko funtzioez gain, beste izaera bateko lanak ere burutu ahal izango dituzte: txostenak egitea, aholkularitza eta lehia sustatzea, hain zuzen ere, zehazki 31. artikuluko d), e), f), j) eta k) hizkietan aipatutakoak:

– Sektore ekonomiko desberdinei buruzko ikerketak egitea, beren egoera eta lehiaren maila edota lehia murrizten duten praktika posibleen existentzia aztertuz. Ikerketa eta txosten hauen ondorioz zenbait neurri hartzea proposatu ahal izango du, bere kasuan sortu izan diren oztupoak kentzeko.

– Informazioa eman, aholkua eman eta proposamenak egin lehia murrizten duten akordio eta praktiken inguruan, merkatuan dagoen lehi-mailari buruz edota lehiaren inguruko beste edozein gaiez.

– Lankidetzak izan lehiatzeko gaiez arduratzen diren atzerriko organo eta nazioarteko erakundeekin.

– Txostenak edo gomendioak egin autonomia erkidegoko lehiaren defentsako organoei, korporazio lokalei, merkataritza-ganbarei, enpresari erakundeetara sindikatuei eta kontsumitzaileen erakundeetara.

Ikus daitekeen bezala, 1/2002 KL-ak organo autonomikoaren eskumen exekutiboak zehazterakoan ez du aipatzen bakarrik jokabide kolusorioen, nagusitasun-egoerazko abusuen edo egintza desleialen instrukzioa eta ebazpena egitearen inguruko funtzioak. Lehiatzeko gaiei buruzko aholkularitza eta sustapena ere barne hartzen ditu.

Beraz, atal honen hasieran egindako galderara itzuliz, 1/2002 KL-ak betetzen al du Konstituzio Auzitegiak bere epaian agindutakoa? Egiazki, baietz esatea oso zaila gertatzen da, Lehenengo Xedapen Gehigarrian organo autonomikoaren alde funtzioen hedapen hau egin arren. Zuzenagoa litzateke esatea agindua oso modu murriztailean bete dela.

Hasteko, esan behar da 1/2002 KL-ak Estatuarentzako gordetzen duela erkidegoko auzi-jartzaileek eta Konstituzio Auzitegiak errekurtsioan espresuki aipatu ez zuten guzti hura. Honi dagokionez, ohartarazpen batzuk egitea komeni da, Konstituzio Auzitegiaren erabakia modu desberdinetan ulertu baitaiteke. Deszentralizazioaren aldekoa ez den ikuspegitik, posible da, noski, defendatzea *antitrust* legearen berrikuntzak soilik esandako epaian aipatzen diren xedapenak besterik ez dituela ukitu behar. Xedapen hauek dira jokabide kolusorioak, nagusitasunezko egoeraren abusuak eta egintza desleialek eragindako lehiaren murriztapenen ingurukoak.

Hala ere, onartu beharra dago posible dela irakurketa zabalago bat egitea, barne hartzen dituen enpresa-kontzentrazioen kontrola eta laguntza publikoak. Iritzi honek badu oinarri sendo bat. Konstituzio Auzitegiak bere argudioetatik atera duen ondorioa izan da, autonomia erkidegoek eskumen *exekutiboak (oro har)* dituztela lehiaren babespen-gaietan. Beraz, logikoa da pentsatzea eskumen horien esparruak ez duela zertan gai batzuetara soilik mugatuta geratu behar, jokabide kolusorioek (kartelek), nagusitasunezko egoeraren abusuak eta egintza desleialek eragindako lehiaren murriztapenetara, alegia.

17. Honako hauek dira: 4, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 29, 31, 32, 33, 34, 36, 36 bis, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 51 bis, 53 eta 56.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22

Konstituzio Auzitegiak hasitako argumentuen hariari jarraituz, ez da oztoporik ikusten enpresa-kontzentrazioen kontrola eta enpresei ematen zaizkien laguntza publikoen inguruan ere eskumen *exekutibo*en deszentralizazioa posible dela onartzeko¹⁸. Jokabide kolusorioekin, nagusitasunezko egoeren abusuekin eta egintza desleialek eragindako lehiaren murriztapenekin gertatzen den bezala, posible da enpresa-kontzentrazioak eta laguntza publikoak egotea, soilik autonomia erkidego bakar batetan eragina dutenak¹⁹. Gainera, ikusiko dugu nola urte batzuk beranduago 15/2007 LDL-ak zentzu honetan aukera batzuk irekita utzi dituen.

Baina badirudi 1/2002 KL egiterakoan beste arrazoi batzuk pisu handiagoa izan zutela. Batetik, aipaturiko bi eremu horiek (enpresa-kontzentrazioak eta laguntza publikoak) ez ziren azterturiko konstituziotasunkontrako errekurtsoen objektu izan. Bestetik, badirudi 1/2002 KL-ren 1.5 artikulua Alemaniako eremuan oinarritu zela²⁰. Azkenik, esan behar da ere, enpresa-kontzentrazio eta laguntza publikoen gaian Estatuko organo independenteak (TDC-k) ez zuela inolako eskumenik erabakiak hartzeko, bere funtzioa txostenak egitea eta aholku ematea zela. SDC-k berak, gobernuaren menpe zegoen organoak, TDC-k baino eginkizun inportanteagoak zituen. Beraz, testuinguru honetan, TDC organo independente zentralaren egitekoa urria izanik (aholkularitza besterik ez),

zentzuz izan zitezkeen organo autonomikoen eskumen exekutiboak kontzentrazioen kontrola eta laguntza publikoen gaian? Ba, logikoa da pentsatzea, gutxienez, funtzio berberak eduki beharko lituzketela organo autonomikoek ere. Gainera, 1/2002 KL-ak (1.5.6 art.) ez du halakorik galarazten²¹. Zentzu honetan, aipatzekoa da aukera honetaz baliatu izan dela galiziar legea²².

Bestalde, aipatu dugun alemaniar eredura jo ezkerro, badira bien arteko antzekotasunak²³. Horrela *Bundeskartellamt* delakoak, 2005.eko erreforma aurretik (7.GWB-Novelle), zenbait gairen inguruko eskumen eskusiboa zuen eta horien artean aurkitzen zen enpresa-kontzentrazioen gaineko kontrola²⁴. Baina, bada bien artean desberdintasun inportante bat: alemaniar eremuan agintari zentral bakarra dago (agintari independentea dena)²⁵ eta espainiar sisteman berriz bi agintari zentral zeuden (TDC independentea eta SDC Gobernuaren menpekoa). *Bundeskartellamt* da lehiaren agintari federala eta berari dagokio enpresa-kontzentrazioen baimena ala debekua erabakitzea. Debekuaren kasuan, enpresek hala eskatuta, Ekonomia Ministroak esku har dezake eta kontzentrazioa baimendu. Baina, horretarako beharrezkoak dira bi txosten: bata *Monopolkommission* delakoarena eta, bestea, kontzentrazioan parte hartzen duten enpresek beren egoitza duten *Land*-eko agintaria²⁶.

18. Ideia honen aurka agertzen da Xabier ARZOZ (2002) 58-60. orr. Bere ustez, enpresa-kontzentrazioen kontrolak eta laguntza publikoenak zerikusi handia dute merkatu bakarra osatzearen ideiarekin eta, oro har, batasun ekonomikoaren printzipioarekin, biak oinarritzeko direnak Estatuarentzako eta, beraz, gai hauen inguruko eskumenen titularitatea autonomia-erkidegoetatik kanpo geratzen da.
19. Ideia honen alde, ikus: AMILS, R. *Los nuevos tribunales autonómicos de defensa de la competencia*, Gaceta Jurídica de la UE y de la Competencia 224 (2003) 64-79 orr.; COSTAS I TERRONES, J., *Hacia una red de defensa de la competencia en España*, Anuario de la competencia 2002 (2003) 47-65 orr.; Julio COSTAS, J. *Comentario al Decreto de creación de los órganos de defensa de la competencia de la Generalitat de Cataluña*, Actas de Derecho Industrial 24 (2003) 1177-1194 orr. eta Lluís FRANCO I SALA, *La nueva Ley de Defensa de la Competencia y los órganos autonómicos*, Gaceta Jurídica de la UE 248 (2007) 93-102 orr. Aipatzekoa da ere, TDC-ren jardueran badirela zenbait txosten efektu intra-autonomiko hutsak izan dituzten enpresa-kontzentrazioen kasuei buruzkoak: C-51/00, *Caja de Navarra y Caja de Pamplona* eta C-56/00 *Salcai/ Utinsa*.
20. Beste batzuen artean, aipatzekoak dira §36 GWB kontzentrazioen kontrolari buruzkoa eta §48.2 GWB eskumen exekutiboa *Bundeskartellamt* lehia babesteko organo federalari esleitzen diona, lehiaren aurkako jokabideen efektuak *Land* baten lurraldea gainditzen dutenean.
21. Julio COSTAS, 2003, 1177-1194. orr.
22. Ikus Galiziar Autonomia Erkidegoko legeak bere Lehiaren Defentsarako Galiziar Auzitegiarentzat ezartzen dituen funtzioak 3.3. artikuluan. (Ley 6/2004, de 12 de julio, de defensa de la competencia da la Comunidad Autónoma de Galicia, art. 3.3):
 b) *Emitir informe en los procedimientos de control de las operaciones de concentración económica regulado en la LDC, cuando así lo solicite el TDC de la Administración general del Estado*
 c) *Enviar al TDC la información que le pueda solicitar en el marco del procedimiento de control de concentraciones regulado en la LDC*
 d) *Solicitar personarse en los procedimientos de control de las operaciones de concentración económica regulados en la LDC, cuando el proyecto u operación afecte a empresas radicadas o con establecimientos abiertos en el territorio de la Comunidad gallega*
 i) *Emitir informe, con carácter facultativo y no vinculante, sobre los proyectos de concesión de ayudas a empresas con cargo a los recursos públicos, en relación con sus efectos sobre las condiciones de competencia, sin perjuicio de las competencias que en esta materia correspondan al TDC de la Administración general del Estado y a la Comisión Europea.*
23. AVENTÍN, V. *Notas sobre el reglamento (CE) N° 1400/2002, de un modelo de aplicación descentralizada del Derecho de la competencia para España, siguiendo los pasos de Alemania y de la UE* eta SUÁREZ, Y. *El reparto de competencias en la aplicación de las normas de Derecho de la competencia. Análisis comparativo del modelo alemán y español*, bi lan hauek jasotzen dituen da: ORTIZ, y GIRADO (Editoreak) Derecho de la Competencia Europeo y Español. Curso de iniciación, V. Alea, 2004, 173-204. orr.
24. Bere eskumenekoak ziren honako gai hauek: kontzentrazioen kontrolari buruzko erabakiak (§ 35-43 GWB, nahiz eta eragindako *Land*-a entzuteko obligazioa izan, erabakia azkenean Ekonomia Ministroaren baimena izatera iristen zenean; argitaratutako produktuen inguruan (§ 15.3 GWB) eta markako produktuei buruz (§ 23.3 GWB) egindako gomendiozko prezioak edo prezioen murriztapen bertikalak baliogabe deklaratzeko edo EEI 81.1 eta 82. artikulua aplikatzea (§ 50.1 GWB). 2005eko erreformaren ostean (7. GWB-Novelle), §§ 4-18 eta § 23 indarrak gabe geratu dira eta EEI-ko 81.1 eta 82. artikuluen aplikazioa *Bundeskartellamt* eta Länder-tako agintarien artean partekatuta dago.
25. RITTNER, F. *Wettbewerbs- und kartellrecht: eine systematische Darstellung des deutschen und europäischen rechts für Studium und Praxis*, Ed. Müller, 6. ed., 1999, 397.orr.
26. 42.4 GWB. MESTMÄCKER, E.J. / VEELKEN, W., “§§ 35-44”, IMMENGA, U./ MESTMÄCKER, E.J., *Wettbewerbsrecht. GWB Kommentar zum Deutschen Kartellrecht*, Vol. 2º alea, C.H. Beck, München 2007, 4. ed., 1502. orr.

Beraz, esan daiteke, espainiar legegileak beste era batetan jardun ahal zezakeela eta autonomia erkidegoekin eta Konstituzio Auzitegiaren epaiarekin errespetu gehiagoko jarrera izan. Esate baterako, 1/2002 KL-ko zioen azalpenean argitu ahal zezaken zergatik autonomia erkidegoen zenbait eskumen exekutibo (enpresa-kontzentrazio eta laguntza publikoei buruzkoak) agintari zentralen eskutan utzi zituen. Baina horrek egin ez zen zerbait eskatzen du, alegia, autonomia erkidegoek eremu horietan eskumena dutela aitortzea.

1/2002 KL-arekin, autonomia erkidegoetako organoen zeregina kokatu zen, beren lurraldetar eremuan, 16/1989 LDL-ko 1, 6 eta 7. artikuluetan araututako *antitrust* jokabideei buruzko espedienteen tramitazio eta ebazpenetan. Jokabide hauek dira kartelak, nagusitasun-egoerazko abusuak eta egintza desleialekin lehia-baldintzak desitxuratzea. Baina, gainera, autonomia erkidegoei ezarri zitzaizen jasotako salaketa eta baimentze-eskari guztiak SDC-ri komunikatzeko obligazioa, baita ofizioz atzemandako jokabide susmagarriak ere. Gero, autonomia erkidegoko organoak prozedura has zezaken, beti ere 15 egun iragan ondoren, SDC-ko Zuzendariak kontrako iritzirik agertzen ez zuenean. Aldiz, Zuzendariak uste bazuen kasua bere eskumenekoa zela, besterik gabe, hala jakinerazi ahal zion organo autonomikoari. Legeak ez zion eskatzen erabakiaren arrazoiak ematerik. Bestalde, 1/2002 KL-ak SDC-ko Zuzendariari ezarri zion soilik dagokion organo autonomikoari ohar labur bat (*nota sucinta*) igortzeko obligazioa, bere eremuan eragina duten *antitrust* jokabideei buruzko salaketa, baimen singularraren eskaria eta ofizioz eginiko administrazio-jardunen berri emanez. Ohar horretan erabakiko zen kasuko organo eskuduna, zentrala ala autonomikoa (1/2002 KL 2.2 art.).

Honi gehitu behar zaio 5.3 artikuluan ezarritakoa. 16/1989 LDL modu bateratuan aplikatzeko helburuarekin, SDC-k posible zuen autonomia erkidegoetako organoek tramitatutako prozedura guztietan agertzea interesdun moduan. Baina organo hauei, berriz, ezarri zitzaizen instrukzio nahiz ebazpen fasetan hartutako erabaki guztiak SDC-ri ezagutarazteko obligazioa, bere kasuan, erabaki horien kontra dagokion errekurtsioa jarri ahal izan zezaten.

Guzti hau informazioaren asimetriazko eredua da. Ez zaio informazioa trukatzeari eta organo desberdinen arteko interakzioari (organo desberdinek elkar eragiteari) garrantzirik ematen²⁷. Horrek sare bat osatzea ahalbidetuko luke²⁸. Horrelako sare instituzional baten funtzionamendu ona, neurri handi batetan, agenteek elkarrekiko duten konfiantzaren baitan dago eta, kasu honetan, ez dirudi agintari autonomikoengan konfiantza handirik ipintzen denik. 1/2002 KL-ak lehiaren defentsarako organoak eratzea ahalbidetzen du, baina beti ere SDC organo estatal zentralaren ikuskaritzaren menpe (organo hau, gainera ez da independentea, Gobernuaren menpekoa baizik). Esandako guztiagatik, 1/2002 KL-arekin, Konstituzio Auzitegiak lehiaren defentsa gaietan eskumen exekutiboak deszentralizatzearen alde emandako enkargua bete izanaren inguruan zalantza asko sortzen zaizkit²⁹.

3.2. Eskumen-gatazkak ebazteko prozedura

Aurrean azaldutako sistema osatzen da Estatuko administrazioa eta autonomia erkidegoen artean edota autonomia erkidegoen artean sor daitezken eskumen-gatazkak ebazteko prozedura batekin. Horretarako sortu zen erakunde zentral bat, alegia, Aholku Batzordea (*Junta Consultiva*), 3. artikuluan arautzen dena, honako osaketarekin: Presidentea (Ekonomia Ministroak izendatua), Ekonomia Ministroak izendaturiko bi kide eta Estatuko administrazioaren aurka jarritako autonomia erkidegoko bi ordezkari edota bata bestearen aurka jarritako autonomia erkidegoetako ordezkari bana.

Honi gehitu behar zaio Estatuko beste organo bat: Lehiaren Defentsako Kontseilua (*Consejo de Defensa de la Competencia*). Organo hau Estatua eta autonomia erkidegoen artean lankidetzatza, koordinazioa eta elkarrekiko informazioa gauzatzeko sortu zen, *antitrust* legedia modu bateratuan aplikatua izan zedin. Bere egitekoak dira: administrazio publiko desberdinek garatzen duten lehiari buruzko politikak ikuskatzea, administrazio autonomikoen *antitrust* legedia aplikatzerakoan erabiltzen

27. Alemaniako legeak Bundeskartellamt eta Estatuetako lehiazko organoen artean informazioa elkar trukatzeko sistema bat aurreikusten du (§ 49 GWB), baina ez halako ohar laburrik. Lehiazko organoei ezartzen dien informazioa emateko obligazioak, GWB-ren aplikazioa bateratua izan dadin ahaletzeko gain, helburutzat dauka ekiditea bata bestearen jardueran interferentziak izatea eta prozedura paraleloak hastea.

28. KLAUE, S. "Zweiter Teil. Kartellbehörden", IMMENGA, U./ MESTMÄCKER, E.J., *Wettbewerbsrecht. GWB Kommentar zum Deutschen Kartellrecht*, 2^o alea, C.H. Beck, München 2007, 4. ed., 1570. orr., eta REHBINDER, E., "§§ 50, 50.a, 50.b GWB", IMMENGA, U./ MESTMÄCKER, E.J., *Wettbewerbsrecht ...* 1567-1583. orr.

29. Xavier ARZOZ 2007, bere iritziz, legegilearen helburua gehiago izan zen Estatuko organoek zeukaten eskumen multzoa babestea, Konstituzioari errespetua izanik, eskumenen banaketa egitea baino.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22

dituzten irizpideak zentralizatzea eta bateratzeko beharra ote dagoen ikustea eta, azkenik, autonomia erkidegoei informatzea, lehiaren defentsarekin zerikusia duten arazoei buruzko arauak egiten direnean (1/2002 KL 5.3 art.).

Erakunde zentral honen osaketa honako hau da: lehiako gaietarako organoak dituzten autonomia erkidego bakoitzeko ordezkari bat, kopuru bereko Estatuko administrazio orokorraren ordezkariak³⁰ eta idazkari bat, ahotsa baduena baina botorik ez. Idazkaria eta Estatuko ordezkariak Ekonomia Ministroak izendatutakoak dira. SDC-ko Zuzendaria izango da Kontseilu honen presidentea (5.2. art.).

Azaldutako analisi honetatik berriz ere ateratzen dugun ondorioa da 1/2002 KL-ak gutxieneko deszentralizazio-sistema bat eratu zuela. Badirudi Administrazio zentralari guztiaren berri eman beharra eta organo zentral berriak (Aholku Batzordea eta Lehiaren Defentsako Kontseilua) ezarri zirela agintari zentralek organo autonomikoen lana ikuskatu zezaten. Honela, 16/1989 LDL eman zenetik hamar urte iragan ondoren, lehiaren defentsa gaietan autonomia erkidegoen alde aitortutako eskumen exekutiboak oso murriztu geratu ziren. Bestalde, horrela antolatutako sistema hau ez da oso eraginkorra. Espediente bat hasi aurretik, haren berri eman beharrak lan administratiboa gehitu egiten du eta prozesuak moteldu, agente ekonomikoek galdatzen duten azkartasun eta dinamismoaren kaltetan. Horri gehitu behar zaio Estatuko organoen politizazio maila handia. 16/1989 LDL indarrean egon zen garaian, funtzio eta ardura inportante asko SDC eta bere Zuzendariaren esku geratu ziren (Ekonomia Ministroaren menpekoak)

eta ez TDC-ren esku, nahiz eta hau izan organo tekniko funtzionalki independentea, hierarkikoki Ministroaren menpe ez zegoena³¹.

Azkenik aipatu 1/2002 KL-ak autonomia erkidegoei aitortu zizkiela 16/1989 LDL aplikatzeko eskumen *exekutiboak*, muga batzuen barruan, baina ez ziela organo propioak sortzeko inolako obligaziorik ezarri. Oraingoz bederatziz izan dira lehiaren defentsako organoak sortu dituzten autonomia erkidegoak eta, bitxia bada ere, sortu ziren garaian, Estatuko organoen antz handiarekin sortu ziren³². 1/2002 KL-ak ez zien zehazki 16/1989 LDL-ko eredu berbera jarraitzeko obligaziorik ezarri, hau da, (TDC eta SDC) organo biko sistema ez zen nahitaezkoa. Hala ere, hauxe izan da oro har hartutako eredu. 2007.ko irailean sartu zen indarrean lege berria 15/2007 LDL, organo bakarreko sistema ezarri duena. Ikusteko dago autonomia erkidegoek ere eredu aldutako ote duten³³. Dagoeneko, Andaluziak halaxe egin du *Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía*³⁴ sortuz.

4. Deszentralizaziorako bidean bigarren urratsa

2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean 15/2007 LDL, aurreko 16/1989 LDL ordezkatu duena. 1989az geroztik lehiaren defentsako gaietan legezko aldaketa ugari gertatu da, bai Europar Batasunean bai eta Espainian ere. Espainiari dagokionez, 16/1989 LDL-ak aldaketa partzial franko izan zituen lege-dekretu eta beste lege batzuen bidez, nahiz eta horietako asko lehiari buruzkoak izan ez³⁵, eta aztertu berri dugun

30. Hauen artean daude SDC-ko Presidentea eta TDC-ko hiru kide.

31. Beraz, aurreko espainiar sistema ezin zen Alemaniako eredu deszentralizatuarekin alderatu. Espainian *Bundeskartellamt*-en pareko organoa TDC litzateke. Baina kontuan izan behar da biek ez dituztela funtzio berberak betetzen. Gainera TDC-ren lidergoa gutxitua geratu zen SDC-ri emandako protagonismoa dela eta.

32. Honako organo autonomikoak sortu izan dira: *Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía, Tribunal eta Servicio de Defensa de la Competencia de Aragón, Tribunal de Defensa de la Competencia de Castilla y León, Tribunal Catalán de Defensa de la Competencia eta Dirección General de Defensa de la Competencia de Cataluña, Jurado de Defensa de la Competencia de Extremadura, Tribunal eta Servicio de Defensa de la Competencia de Galicia, Tribunal de Defensa de la Competencia de la Comunidad de Madrid, Tribunal de Defensa de la Competencia de la Comunidad Valenciana*, eta *Lehiaren Defentsako Euskal Auzitegia eta Zerbitzua*.

33. MAGIDE, M., *Comentario al art. 13*, MASSAGUER, J./ FOLGUERA, J./ SALA, J.M./ GUTIERREZ, A. (Zuzendariak) Comentario a la Ley de Defensa de la Competencia, 2008, 431.orr. Bere iritiz, 15/2007 LDL-ak aukera galdu du autonomia erkidegoei Comisión Nacional de la Competencia berriak bezalako independentzia daukaten organoak eratzeko obligazioa ezartzeko.

34. Eratu zuen legea: Ley 6/2007, de 26 de junio, de Promoción y Defensa de la Competencia en Andalucía (BOJA núm 131, de 4 de julio de 2007).

35. Honako hauek izan ziren:

- Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa
- R.D.-Ley 6/1999, de 16 de abril, de Medidas Urgentes de Liberalización e Incremento de la Competencia (BOE núm. 92 de 17 de abril de 1999)
- R.D.-Ley 6/2000, de 23 de junio, de Medidas Urgentes de Intensificación de la Competencia en Mercados de Bienes y Servicios (B.O.E. núm. 151 de 24 de junio de 2000, corrección de errores B.O.E. núm. 154 de 28 de junio)
- Ley 52/1999, de 28 de diciembre, de reforma de la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia (BOE núm 311 de 29 de diciembre de 1999)
- Ley 9/2001, de 4 de junio, por la que se modifica la disposición transitoria sexta de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, determinados artículos de la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia y determinados artículos de la Ley 46/1998, de 17 de diciembre, sobre introducción al euro (B.O.E. núm. 134 de 5 de junio)
- Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social (B.O.E. núm. 313 de 31 de diciembre)
- Ley 53/2002, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social (B.O.E. núm. 313 de 31 de diciembre)
- Ley 36/2003, de 11 de noviembre, de medidas de reforma económica (B.O.E. núm. 271, de 12 de noviembre). Esta Ley procede del R.D. - Ley 2/2003, de 25 de abril (B.O.E. núm. 100 de 26 de abril)
- Ley 62/2003, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social (B.O.E. núm. 313 de 31 de diciembre).

1/2002 KL ere eman zen. Bestalde, Europar Batasunean bi erreforma garrantzitsu gertatu ziren: bata (EE) 1/2003 Kontseiluaren Erreklamendua, 2002ko abenduaren 16koa, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren 81 eta 82. artikuluetako arauen aplikazioari buruzkoa eta, bestea, (EE) 139/2004 Kontseiluaren Erreklamendua, 2004ko urtarrilaren 20koa, enpresa-kontzentrazioen kontrolari buruzkoa.

Arau multzo honek lehiaren defentsako espainiar sistema erabat berritzea eskatzen zuen. Sistema zaharkitua zegoen eta ezin zen jarraitu ordura arte bezalako eguneratze partzial batzuk gehituz. Aldaketa sakonagoa behar zuen, batez ere, europar araudira egokitu ahal izateko. Horregatik da bereziki azpimarratzekoa ekarri duen erakundeei buruzko aldaketa eta gertakari horrek administrazioaren deszentralizazioan izan duen eragina.

Esan bezala, 16/1989 LDL-ko sistemari lehiaren defentsan espezializatutako bi organo administratibo zentral zeuden: TDC eta SDC. TDC zen organo tekniko independentea, jokabide kolusorio, nagusitasunezko egoeren abusu eta lehia desitxuratzeko egintza desleialei buruzko ebazpenak ematen zituen. Enpresa-kontzentrazio eta laguntza publikoen gaietan ez zuen erabakirik hartzen. Bere egitekoa aholku ematea zen soilik, erabakia Ministroaren Kontseiluari baitzegokion.

Gure inguruan Frantziak bakarrik dauka antzerako antolaketa bi organorekin; *Conseil de la Concurrence* eta *Direction generale de la Concurrence, de la Consommation et de la Repression de Fraudes*. Erresuma Batuak ere lehiaren bi organo ditu: *Office of Fair Trading* eta *Competition Commission*. Baina erakunde hauek elkarrekiko independenteak dira eta Gobernuarekiko baita ere.

Lege berriak organo bakarreko sistema aukeratu du. Estatu mailako agintari bakarra sortu du, Gobernuarekiko independentea dena: *Comisión Nacional de la Competencia* (CNC)³⁶. Honek hartu ditu aurreko bi organo estatalen funtzioak eta funtzio berriak ere, esate baterako, enpresa-kontzentrazioen eta laguntza publikoen kontrola.

Deszentralizazioari dagokionez, esan behar da kasu honetan legegileak aurrekoan izan ez

zuen ardura erakutsi duela behintzat³⁷. 16/1989 LDL-ak, aldaketa guztien ondoren ere, oso arau gutxi zituen gai honi buruz: 51 eta 51 bis eta bigarren amaierako xedapena. Deszentralizazioa 1/2002 KL-rentzat utzi zen. 15/2007 LDL-ak, berriz, dozena bat artikuluko (3, 10, 11, 13, 15, 16, 17, 24, 25, 35, 41 eta 58) eta bost xedapen gehigarrietan (2., 5., 7., 8. eta 10.) aipatzen ditu lehiaren defentsarako organo autonomikoak. Gainera, zenbait arau *ad hoc* ere sartu ditu, ondoren aztertuko ditugunak.

4.1. Lehia babesteko ohiko ahalmenak

15/2007 LDL-ak egin duen eskumen-banaketa, neurri handi batetan, bat dator aurreko legearekin. 13.1 artikulua dio, autonomia erkidegoetako organoek ahalmena dutela, beren lurraldetar eremuan, eskumen *exekutiboak* egikaritzeko jokabide kolusorio (1.art.), merkatuko nagusitasun egoeren abusu (2. art.) eta lehiatzeko baldintzak desitxuratzeko egintza desleialei buruzko prozeduratan, beti ere lege honi eta 1/2002 KL-an ezarritakoari so eginez. Helburu horrekin, nagusiki beren lana da zehapenak eta isunak ezartzea eta intimazioak edo errekerimenduak egitea. Autonomia erkidegoetako organoen egintza eta ebazpenen aurka errekurtsioa jar daiteke dagokion Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan³⁸.

Hauxe da autonomia erkidegoetako organoen funtsezko zeregina, lehen zenaren antzekoa, nahiz eta badiren beste berrikuntza batzuk ondoren aztertuko ditugunak. Dena den, ohikoak diren ahalmen hauei dagokienez (1., 2. eta 3. artikuluko jokabideei buruz), deszentralizazioaren ikuspegitik bada legean kritikagarria den zerbait.

6. artikulua arautzen du, interes publikoaren arrazoiak medio, zein kasutan deklaratu daiteken 1. eta 2. artikuluen ez aplikatzea. Deklarazio hauek erabakitzeak Estatuko organoak aipatzen ditu soilik. Deklarazioa egitea CNC-ri dagokio, beti ere aurretiaz Lehiaren Defentsako Kontseiluaren txostena izanik. Baina, harrigarria bada ere, ez da organo autonomikorik aipatu ere egiten eta ez da ulertzen zergatik. Beraiei dagokie, beren

36. www.cncompetencia.es Independentzia sendotu egin da, sei urterako hautatzen diren Presidente eta sei kideak ezin direlako kargutik kendu ez eta kargua berritu ere. Beren izendapena Gobernuari dagokio baina beharrezkoa da aurretiaz Diputatuen Kongresuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean azaltzea proposatutako kideen gaitasuna eta ezagutza teknikoak.

37. Ikus Ekonomia eta Ogasun Ministerioak egingako *Libro Blanco para la reforma del sistema español de defensa de la competencia*, 2005.01.20.koa (aurrerantzean *Liburu Zuria*).

38. 15/2007 LDL-aren aplikazioan autonomia erkidegoetako organoen egintza eta ebazpenen aurka errekurtsioa jar daiteke dagokion Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22

lurraldetar eremuan, 15/2007 LDL-ko 1. eta 2. artikulutako jokabideen gaineko debekuak aplikatzea. Beraz, logikoa litzateke beraiek izatea ere debeku horien aplikaziorik eza deklaratuko luketenak, autonomia erkidegoaren interes orokorrak hala behar izanez gero. Beraz, esan bezala, ez da ulertzekoa 6. artikuluko organo autonomikoei aipamenik ez egitea³⁹.

4.2. Lehia babesteko ahalmen berriak

Lehenago defendatu dudan bezala, autonomia erkidegoen eskumen *exekutiboek* ez dute zertan mugatu behar soilik jokabide kolusorioak, merkatuko nagusitasun-egoeren abusuak eta lehia desitxuratzen duten egintza desleialak tratatzera. Beste gai batzuk hartzea ere posible litzakete, adibidez enpresa-kontzentrazioak eta laguntza publikoak, besteak beste. Hala egin du 15/2007 LDL-ak eta lehiaren defentsarako organo autonomikoei aitortu zaizkien ahalmen berriak aztertuko ditugu jarraian.

4.2.1. Laguntza publikoak kontrolatzea eta administrazio publikoen jarduera ikuskatzea

CNC berak laguntza publikoen gaian TDC zenak baino eskumen gehiago du⁴⁰. Hauei buruzko txostenak igortzeaz gain, posible du administrazio publikoei proposamenak egitea lehia babesteko. Baina, hala ere, esan behar da hauek ez direla laguntza publikoak kontrolatzeko benetako tresnak⁴¹, ez baitute inongo indar hertsakorrik (koertzitiborik) ez eta ondorio juridiko loteslerik ere.

Gainera, 15/2007 LDL-aren arabera, autonomia erkidegoek ezin dute gauza bera egin beren eremuan. Egin dezaketena da beren lurraldeko administrazio autonomiko edo lokalek emandako laguntza publikoei buruzko txostenak egin eta CNC-ri igorri, honek bere urteko txostenean sar ditzan edota bestelako txosten edo proposamenak egin diezaien aipatutako administrazioei (11.5. art.). Beraz, 11. artikuluko interpretazio literala eginez, badirudi administrazioei proposamenak egiteko ahalmena CNC-rena dela eta ez organo autonomikoena, hauei laguntza ematea egokitu zaiela besterik gabe.

Baina interpretazio literal honek indarra galtzen du 13.2 artikuluan esaten dena aintzat hartzen baldin badugu eta, horregatik proposatzen dut interpretazio sistematikoa egitea. 13.2. artikuluko dio autonomia erkidegoetako organoek legitimazioa dutela aurkatzeko, dagokion jurisdikzioaren aurrean, bere lurraldeko administrazio autonomiko nahiz lokalen egintzak eta, baita ere, legea baino lerrun gutxiagoko arauak beren merkatuetan lehia efektiboa mantentzeko oztopoak jartzen baldin badituzte⁴². Beraz, administrazioaren egintzak eta erreglamenduzko arauak aurkatzeko legitimatuta baldin badaude, ulertu beharra dago administrazio horiei aurretiaz proposamenak egiteko ahalmena ere izango dutela.

Administrazioen ekimenek eragina izan dezakete merkatuetan eta lehiaren baldintzetan⁴³. Adibidez, zenbait kasutan, enpresa batzuk merkatuan sar ez daitezen oztopo izan daitezke edota zenbait enpresak merkatuan duten egoera laguntza horiei esker lortu (mesedetu) beste batzuen kaltetan, e.a. Horregatik, 13.2. artikuluko ahalmen hau, autonomia erkidegoetako organoentzat berria dena, oso tresna baliagarria izan daiteke laguntza publikoak (agerikoak nahiz ezkutukoak) eta administrazioen bestelako egintzak kontrolatu ahal izateko.

13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, organo autonomikoak administrazio publikoen egintzak *ex post* ikuskatu edo kontrolatzen dituela dirudi. Egintza administratiboa edo araua eman ondoren, lehiarentzako ondorio kaltegarriak baldin baditu, aurkatzea eskatzeko aukera ematen du. Aukera hauxe da, hain zuzen ere, arau honek duen balio erantsirik handiena, berez, *ex ante* kontrola egitea ahalbidetzen baitu. Organo autonomikoak bere lurraldeko administrazio baten egitasmo susmagarriren berririk baldin badu, posible du administrazio horri inpugnazioaren aukerarekin mehatxu egitea, bere ekimena bertan behera utzi edo zuzendu dezan.

Beraz, esan daiteke 15/2007 LDL-ak, laguntza publikoak eta administrazioaren jarduerak kontrolatzeko alorrean urrats kualitatibo inportantea eman duela, deszentralizazioari dagokionean, 1/2002 KL-aren mugak gaindituz⁴⁴. Gogoratu bere 1.5.a) artikuluko arautzen zuenez, laguntza publikoen gaia organo autonomikoentzat espresuki galarazita zegoela.

39. Zentzu honetan, ikus Kataluniako lehiaren defentsako organoek Lehiaren Defentsako Legearen Aurreproiektuari egindako oharpenak. www.cnc.es

40. Gonbaratu 16/1989 LDL 19. art. eta 15/2007 LDL 11. art.

41. FERNÁNDEZ FARRERES, G. *Artículo 11*, MASSAGUER, J./ FOLGUERA, J./ SALA, J.M./ GUTIERREZ, A. (Zuzendariak) Comentario a la Ley de Defensa de la Competencia, 2008; 415 e.o. 423.orr.

42. MAGIDE, M., (2008); 431. orr.

43. *Liburu Zuria*, 214. zenb.

44. FRANCO I SALA, L., (2007); 97. orr.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22

Agintari autonomikoez gertu egotearen abantaila eskaintzen dute eta, gainera, agintari zentralak baino lan zama txikiagoa izatea espero da. Ondorioz, eraginkorragoak izan daitezke informazio fidagarria aurkitzeko, beharrezko diren aspektuen jarraipena egiteko, lehiarentzat kaltegarriak diren egitasmoak ezagutzeko eta galarazten saiatzeko.

15/2007 LDL-arekin autonomia erkidegoei dagokien 13.2 artikulua aplikazioa burutzea. Baina horrek eskatzen du lehiaren organoan bere administrazioarekiko benetan independententeak izatea. Ez da ahaztu behar, tamalez, autonomia erkidego askotan hau oraindik ez dela horrela. Kasu batzutan lehiaren defentsako organoak nortasun juridiko propioa eta guzti sortu izan dira. Hauek, administrazio autonomikoekiko independentzia gehiago edo gutxiago izan dezakete baina, behintzat, badute 13.2 artikuluko inpugnazioa egiteko ahalmena, LJCA-rekin problemarik planteatu gabe. Baina beste kasu batzutan organo autonomikoak administrazio autonomikoaren egitura barnean kokatu dira, inolako nortasun juridikorik gabe. Hauxe da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko kasua. Beraz hemen LJCA-ren arabera, organo horiek ez lukete legitimaziorik izango administrazioaren egintza eta arauak aurkaratzeko. Honi buruz, autore batek esan du posible luketela aurkaratzeak egitea, LJCA 19. artikulua bete ez arren, legitimazio hori ez de delako LJCA-tik erauzten, 15/2007 LDL-ko 13.2 artikulutik baizik⁴⁵.

4.2.2. Enpresa-kontzentrazioen kontrola

Gai honetan Estatuko organo independentea denak, CNC-k, baditu gaur egun lehenago TDC-k ez zituen ahalmenak. TDC-ren egitekoa aholku ematea besterik ez zen eta orain, berriz, CNC-ri dagokio berari jakinarazitako kontzentrazioei buruzko ebazpenak ematea (15/2007 LDL 24, 9, 10 eta 55-59. art.). CNC-k bere ebazpenarekin erabaki dezake kontzentrazioa baimentzea, baldintzapean baimentzea edo debekatzea. Dena den, azken bi kasu hauetan Ekonomia Ministroak ebazpena Ministroen Kontseilura eraman dezake, interes

orokorreko arrazoiak direla eta, honek baimena erabaki dezan⁴⁶.

Laburki esanda, gaur egun, enpresa-kontzentrazioen kontrolak hiru fase ditu⁴⁷. *Lehen fasean* lehiarentzako problemarik ekartzen ez dituzten kontzentrazioak aztertu eta baimendu egiten dira. Arazoak ikusi ezker, *bigarren fasean* azterketa sakonago bat egiten da eta bertan parte hartzen dute hirugarren interesdunek, lehiaren defentsako agintari autonomikoez eta erakunde erregulatuak sektorialeak. Gero, CNC-ren erabakia kontzentrazioa debekatzea edo baldintzapean baimentzea izan bada, Ekonomia Ministroak espediente Ministerioen Kontseilura eraman dezake (*hirugarren fasea*), honek azken erabakia har dezan. Beraz, 15/2007 LDL-k *bigarren fasean*, hain zuzen, aurreikusten du lehiaren defentsako agintari autonomikoen parte hartzea. Hala esaten da 58.1 artikuluan⁴⁸. Ikus dezagun bertatik erauzten diren zenbait ondorio.

Lehenengoz, CNC-k autonomia erkidegoengandik informazioa jasotzen duen moduz jardungo dugu. CNC-k autonomia erkidegoengana joko du, enpresa-kontzentrazioak merkatu nazional osoan edo zatiren batetan lehia oztopatu dezakeela uste izan eta *bigarren fasea* hastea erabakitzen baldin badu. Baina, CNC-k ezin al dezake aurretiaz autonomia erkidegoei informaziorik eskatu? Hain zuzen, *lehen faseatik bigarreneira* iragan edo ez erabakitzeko baliagarria izan daiteke informazioa eskatzea, autonomia erkidegoetako agintariak gertutasunagatik kasuaren ezagutza hobea izan dezaketelako. CNC-k ezin al die lankidetzarik eskatu? Paradoxikoa badirudi ere, 15/2007 LDL-k ez du ematen aukerarik autonomia erkidegoek *lehen fasean* informazioa eman dezaten, nahiz eta erakunde erregulatuak sektorialentzat *lehen* edo *bigarren faseako* oztoporik ipini ez (17.2.c art.).

Bigarrenez, azpimarratu behar da erakunde erregulatuak sektorialeak autonomia erkidegoetako lehiaren defentsako agintariak baino tratatu hobea jasotzen duten beste kasu bat. 15/2007 LDL-k ez die ezartzen txostena emateko eperik eta, gainera, txostena eman bitartean (gehienez hiru hilabetez) kontrol-prozedura

45. MAGIDE, M., (2008); 431. e.o.

46. Kontzentrazioen kontrolak Alemaniako eredu jarraitzen du, nahi eta zenbait gaitan desberdina izan. Esate baterako, Alemaniako Ekonomia Ministroak baimena (*Ministererlaubnis*) emateko ekonomia edo interes orokorreko ez-ohiko arrazoiak izan behar ditu (§ 42.1 GWB). Aldiz, 15/2007 LDL 10.4 artikulua interes orokorreko arrazoi batzuen zerranda irekia egiten du eta ez du ez-ohikotasunik galdatzen. Bestalde ere, Alemaniako Ekonomia Ministroak baimena eman aurretik bi txosten jaso behar ditu, bata *Monopolkommission* delakoarena eta, bestea, kontzentrazioan parte hartzen duten enpresek egoitza duten Estatuetako *antitrust* agintariena (*Landesbehörden*). Honi buruz, ik. MESTMACKER/VEELKEN, 2007, 1513. orr.; BROKELMANN, H., *La reforma del régimen de control de concentraciones en la nueva Ley de Defensa de la Competencia*, La Ley 1, Nueva Época, (Ene-Feb. 2008); p. 79-87.

47. 15/2007 LDL 57 eta 58 artikuluetan lehen eta bigarren faseez mintzo da. Ez du espresuki hirugarren fasea aipatzen. Baina, kontuan hartu beharra dago, bi fase horiez gain, Ministroen Kontseiluak ere parte har dezakeela (60. art.). Honi *hirugarren fasea* deituko diogu.

48. Honela dio: "Cuando una concentración incida de forma significativa en el territorio de una Comunidad Autónoma, la Dirección de Investigación solicitará informe preceptivo, no vinculante, a la Comunidad Autónoma afectada, a la que remitirá junto con la nota sucinta, copia de la notificación presentada, una vez resueltos los aspectos confidenciales de la misma, para emitir informe en el plazo de veinte días".

eteteko aukera ere ematen du (37.2.d art.). Agintari autonomikoek, berriz, 20 eguneko epea dute txostena egiteko eta bitartean ez da kontrol-prozedurarik eteten. Ez da ulertzen legeak ematen duen tratu desberdin hau: *Liburu Zuriak* eta Estatuko Kontseiluaren Diktamenak bientzat gomendatzen zuten kontrol-prozeduraren etetea, txostena heldu bitartean.

Hirugarrenez, aipatuko dugu informazio konfidentzialen gaia. 58.1 artikulua dio autonomia erkidegoari txostena eskatuko zaiola enpresek emandako informazioan aspektu konfidentzialik ba ote dagoen erabaki ondoren. 42. artikuluan enpresen informazio konfidentziala arautzen da eta hauek emandako zenbait datu nahiz dokumentu konfidentzialtzat hartu ezkerro sekretupean gordeko dira pieza banandu bat osatuaz. Orduan autonomia erkidegoei txostena egiteko igorriko zaien dokumentuetatik sekretupeko aspektu hauek ezabatu egingo dira eta ohar labur bat (*nota sucinta*) besterik ez zaie emango. Hau ere ez da oso ulergarria. Autonomia erkidegoetako agintariek ez al dute 15/2007 LDL aplikatzeko ardua? Hori da legeak esaten duena. Orduan, nolatan ezin dute CNC-k erabiltzen duen informazio berbera erabili, konfidentziala izan ala ez? Autonomia erkidegoei informazio osoa ez emateak mesfidantza erakusten du eta mesfidantzarekin ezinezkoa da benetako antolaketa deszentralizatua gauzatzea. Horrek ez du sistema deszentralizatuaren eraginkortasunaren alde egiten.

Laugarrenez, txostena zein autonomia erkidegori eskatu eta hori erabakitzeko arazoaz mintzatuko gara. 58.1 artikulua arabera, kontzentrazio batek autonomia erkidego baten lurraldean *modu nabarmenean (de forma significativa)* eragiten duenean, autonomia erkidego horri txostena eskatuko zaio. Artikulu honek eskatzen du *nabarmenki* eragitea zer den baloratzea. Eragina egiten badu, baina *nabarmena* ez bada, ez da txostena eskatu beharrik izango. Gainera, kontzentrazio batek eragin nabarmena izan dezake autonomia erkidego bat baino gehiagotan. Orduan, legeak espresuki esan ez arren, dagozkion agintariei txostenak eskatuko zaizkiela ulertu behar da.

Atal hau ixteko, gogora ekarriko dugu nola 16/1989 LDL-ak ez zuen autonomia erkidegoetako agintarien inolako parte hartzerik

aipatzen enpresa-kontzentrazioen kontrol-prozeduretan. Gai hau eztabaidatua izan zen legearen tramitazioan eta azkenean 15/2007 LDL-an sartu egin zen⁴⁹. Eduki horrekin 1/2002 KL 1.5.a artikuluko mugak gainditu egin dira, artikuluko honek diolako gai hau, edozein kasutan, Estatuarena dela. Hala ere, arestian azaldu denez, autonomia erkidegoen parte hartzea nahiko urria da eta ez da ahaztu behar bere txostena ez dela loteslea. Euren partaidetza batez ere formala da, efektiboa baino gehiago⁵⁰. Honen inguruan, Kataluniako Lehiaren Defentsako Organoek lege-aurreproiektuaren zirriborroari egindako Oharpenetan (9. orr.) proposatu zuten Autonomia Erkidegoek enpresa-kontzentrazioen kontrolko prozeduratan pertsonatzeko aukera izatearen aldeko proposamena, baina ez zen hala egin⁵¹.

4.2.3. Jurisdikzio-organoekin lankidetzak

15/2007 LDL-ko xedapen gehigarriek jurisdikzio eta prozesuko arauen inguruko aldaketa batzuk sartu dituzte, lehiaren zuzenbidea jurisdikzio zibilak nola aplikatu eraentzeko. Lehenengo xedapen gehigarriak dio Merkataritzako Auzitegieta gauzatuko direla 15/2007 LDL-ko 1 eta 2. artikuluei buruzko prozesuak. Hau berrikuntza bat da, *Liburu Zurian* (88, 89. zenb.) proposatutakoa eta bere helburua da eremu administratiboa eta judiziala uztartzea.

Testuinguru honen ondorio da 16.2 artikulua eta Bigarren Xedapen Gehigarria, 1/2000, Prozedura Zibilaren Legean zenbait aldaketa egin dituen. Horrela, autonomia erkidegoetako organoek parte hartu ahal izango dute, beren ekimenez edota jurisdikzio-organoek eskatuta, EEI 81 eta 82 artikuluei nahiz 15/2007 LDL 1 eta 2. artikuluei buruzko prozeduratan, bai informazioa emanez bai eta idatzizko oharpenak aurkeztuz ere. Gainera, organo judizialaren baimenarekin, ahozko oharpenak ere egin ahal izango dituzte. Horretarako, dagokion jurisdikzio-organori eskatuko diote beharrezko dituen dokumentuak eskura ipintzea gaiaren balorazio egokia egin ahal izateko.

Prozedura hauetan autonomia erkidegoetako eskumendun organoen parte hartzearekin (baita CNC eta Europako Batzordeak parte hartzearekin ere) bilatu nahi da *amicus curiae* delako figura ezartzea⁵². Halaxe esaten da *Liburu Zurian* (88, 89. zenb.), baina 15/2007 LDL-

49. Hasera batetan, Lege Proiektuak ez zuen autonomia erkidegoen parte hartzerik jaso, baina *Liburu Zurian* jasota zegoen (200 i.i zenb.). Esaten zen nola, prozeduraren eraginkortasuna eta gardentasuna indartzeko, Estatuko administrazioko organoek beste erakunde batzuei informazioa eskatzea aurreikusi beharra zegoen (autonomia erkidegoetakoei, Europako Batzordeari eta EB-ko beste Estatuakoei). Estatuko Kontseilua ere iritzi berekoa izan zen, ik. bere erizpena 2006.07.20koa, 1080/2006 Espedientea (Ekonomia eta Ogasuna), www.consejo-estado.es.

50. MARCOS, F. eta SÁNCHEZ, A. *El sistema de control de concentraciones empresariales en la nueva Ley de Defensa de la Competencia*, Instituto de Empresa Working Paper WPE 07-14, de 2007.11.15.koa, www.ie.edu.

51. Ik. Kataluniako Lehiaren Defentsako Organoek lege-aurreproiektuaren zirriborroari egindako Oharpenak, 9. orr., www.cncompetencia.es.

52. ARRIBAS, A. *Comentario a la Disposición Adicional Segunda*, MASSAGUER, J./ FOLGUERA, J./ SALA, J.M./ GUTIERREZ, A. (Zuzendariak) *Comentario a la Ley de Defensa de la Competencia*, Ed. Civitas, Madrid 2008; 730.orr.e.o.

ak ez ditu hango argibideak jarraitzen. Hain zuzen, ez du inolako informazio sistemarik aurreikusten lehiaren agintari desberdinek hasita dituzten auzien berri izateko. Horrelako zerbait erabat beharrezkoa da hauek parte hartu ahal izan dezaten interes publikoaren aldetik garrantzitsuak diren prozesu judizialetan.

Zentzu honetan, lehiaren defentsako organo autonomikoentzat komenigarria izango litzateke ere 25.c) bezalako artikuluren bat. Honen arabera, dagokion organo judizialak eskatuta, posible da CNC-k erabakitzea zeintzuk izango diren irizpideak kalkulatzeko 15/2007 LDL 1, 2 eta 3. artikuluen aplikazioaren ondorioz auzi-jartzaileei eta kaltetutako hirugarrenei eman beharreko kalte-ordainak.

Dena den, 15/2007 LDL-ak espresuki hala adierazi ez arren, organo judizialek badute bide bat lehiaren defentsako organo autonomikoei kalte-ordainak kalkulatzeko irizpideak eskatu ahal izateko. Lan honetan azaldu dugun bezala, 1/2002 KL lehenengo xedapen gehigarriak dio 16/2989 LDL-an TDC eta SDC-ri egindako erreferentziak lehiaren defentsako organo autonomikoei egindakotzat ulertu behar direla, beren eskumenekoak diren gaietan. Horretarako 16/1989 LDL-ko artikuluen zerrenda luze bat aipatzen da, 31. artikulua barne. Hau da erantzukizun eta kalte-ordainei buruzkoa, eta bide honetatik organo autonomikoei esandako ahalmena egikaritu ohi dute⁵³. Beraz, bide hau erabiliz, organo judizialak lehiaren defentsako organo autonomikoen aholkularitzaz baliatzen ari baldin baziren, ez da ulertzen nolatan ez zen behingoz 15/2007 LDL-an arautu.

4.2.4. Erakunde erregulatzailer sektorialekin lankidetzak

Oro har, lehiaren defentsako gaietan, erregulatzailer sektorialekin lankidetzak CNC-ri dagokio (17. art.). Baina, 15/2007 LDL-k, maila batean, autonomia erkidegoetako organoek ere lankidetzak horretan parte hartzea ahalbidetzen du. Hauek, CNC-k egiten duen bezala, erakunde erregulatzailer sektorialekin txostenak (ez lotesleak) eska diezazkiekete, jorratzen ari diren espedienteen inguruan aholku eman dezaten (15/2007 LDL-ko 1-3. artikuluetan debekaturiko portaerei buruzko espedienteak). Hauxe da autonomia erkidegoetako organoek lankidetzarako duten ahalmen guztia.

Eremu honetan, hutsune bat adierazi behar da. 17.3. artikuluan esaten da urtero batzar bat egingo dela, CNC eta erakunde

erregulatzailer presidentek bilduko dituen, beren ibilbidea gidatzeko irizpideak eta lankidetzarako baliabideak erabakitzeko. Baina bilera honetan, organo autonomikoei ez dute zer esanik, ez dute parte hartzen.

4.2.5. *Comisión Nacional de la Competencia*-rekin lankidetzak

Gai hau 15/2007 LDL-ko 15. artikuluan aipatzen da baina bertan ez da ezer arautzen. Horren ordean, 1/2002 KL-an araututakora igorpena egiten du. Hau ez da bide egokiena, kontuan izanik 15/2007 LDL-ko hamargarren xedapen gehigarriak 1/2002 KL-an gai honi buruzko aldaketa batzuk sartzen dituela. Beraz, aproposagoa izango zatekeen 15. artikulua gaitu arautu izan balu.

Lan honetako 3.1 atalean aztertu da 1/2002 KL-ak zer nolako lankidetzak ezarri zuen organo zentral eta autonomikoen artean. Lankidetzak hau asimetrikoa izan zen. Batetik, autonomia erkidegoek jasotako salaketa eta baimen-eskaera guztien *kopia* eta baita ofizioz irekitako espediente guztia ere SDC-ri bidaltzeko obligazioa zeukaten. Baina, alderantziz, honen kasuan, bere obligazioa ez zen autonomia erkidegoetako organoek *kopia* bidaltzea, *ohar labur bat* (nota sucinta) besterik ez. Bestalde, kontuan izan behar da ere, SDC-k, interesatu bezala, agertzeko aukera zuela autonomia erkidegoetako organoek tramitaturiko prozedura guztietan (5.3 Art.). Gainera, hauei beren erabaki guztiak, instrukzio nahiz ebazpen fasetakoak, SDC-ri jakinarazteko obligazioa ezarri zitzaion, SDC-k bere kasuan errekurtsioa jarri ahal izan zezan.

15/2007 LDL-k asimetria hau zertxobait gutxitu eta lehiaren defentsako agintari zentral eta autonomikoen artean parekotasuna izatearen alde egin du. Horrela, 5.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, CNC-k informazio apur bat gehiago jarriko du organo autonomikoen esku. Honek igorriko die berak ofizioz burututakoaren *ohar labur bat* eta jasotako salaketaren *kopia*, dagokion autonomia erkidegoari buruzkoak direnean (Hamargarren xedapen gehigarria. Bi).

1/2002 KL 5.4 artikulua ere aldatu egin da. Orain organo autonomikoei denbora gehiago izango dute (20 egon 10 beharrean) beren txostena igortzeko, beren lurraldetar eremuan nabarmen eragiten duten 15/2007 LDL-ko 1, 2 eta 3. artikulutan eta EEI-ko 81 eta 82. artikulutan araututako portaeren kasutan. Esan behar da, txosten hau nahitaezkoa dela, baina ez da loteslea.

53. FRANCO I SALA, L., (2007); 93-102 orr.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkatuko lehia babesteko? *Eleria*. 18, 2009, 5-22

Ikusten denez, aldaketa hauek ez dira oso esanguratsuak. Aldaketa nabarmenagoa izango litzateke autonomia erkidegoetako organoek interesatu moduan CNC-k tramitatutako prozeduratan agertzeko aukera izatea. Baina ez da hala egin⁵⁴.

Azkenik aipatu nahi nuke, gaur egun, CNC agintari zentrala eta autonomikoen arteko lankidetzaz ez dela soilik 15/2007 LDL-ko 1, 2 eta 3. araututako jokabidetara mugatzen (kartelak, merkatuko nagusitza egoeren abusuak eta lehia asaldatzen duten egintza desleialak). Aldiz, beste eremu batzuetara ere hedatzen da: enpresa-kontzentrazioak eta laguntza publikoak. Azken bi kasu hauen eremuko lankidetzaz lan honetako 4.2 eta 4.3 ataletan aztertu dugu.

4.2.6. Zuzenbide Komunitarioaren aplikazioa

15/2007 LDL-ko 24.c) artikulua dio Espainako Estatuan EEI-ko 81 eta 82 artikulua zein haieetatik eratorritako zuzenbidea ere CNC-ri dagokiola aplikatzea eta, bere kasuan, epaileei. Eratorritako zuzenbidea horren arau nagusia da 1/2003 (CE) Erreglamendua, 2002.ko abenduaren 16koa, Ituneko 81 eta 82 artikuluei buruzkoa⁵⁵. Europar erreglamenduan esaten da EEI-ko 81 eta 82 artikulua aplikatzeko ahalmena dutela Estatu kideetako lehiaren agintariak (4. art.) eta jurisdikzio organoak (5. art.). Beraz, lehiaren defentsako organo autonomikoak Estatu kide bateko lehiaren agintari ere badirenez eta EEI 81 eta 82-ren aplikazioa eskumen exekutibo bat denez, logikoa litzateke pentsatzea organo autonomikoek ere ahalmen hori izan beharko luketela. Baina, 15/2007 LDL-ak ahalmen hori izatea galarazi die. Zergatik hori? Agian, arau hauek aplikagarri zaizkien kasuen gehiengoak autonomia erkidego bakarraren eremua gainditzuten duelako. Organo autonomikoek oso kasu gutxitan aplikatuko lukete zuzenbide komunitario hau eta, agian ez litzateke oso efizientea aplikaziorako ahalmena partekatzen duen araua ezartzea.

Dena den, hala izanda ere, uste dut badela arau efizientea emateko erdibide bat. Hauxe da, esate baterako Kataluniako lehiaren defentsako

organoek proposatu zutena 15/2007 LDL-ren tramitazio garaian⁵⁶. Zehazki zera proposatu zuten:

– Lehiaren aurkako jokabideek autonomia erkidego baten eremuan nabarmenki eragiten dutenean, agintari autonomikoak, administratiboak nahiz judizialak, informatzeko tresnak ezartzea⁵⁷.

– Europako Batzordeak edota beste Estatu kide batzuetako agintariak, zuzenbide komunitarioa aplikatzerakoan, eremu autonomikoan burutu beharreko egintzen inguruan lankidetzaz izateko tresnak ezartzea⁵⁸.

Egindako proposamenek 24.c) artikulua errespetatzen dute, baina KA-ak emandako mandatu eta, gainera, organo autonomikoek, neurri batean behintzat, parte hartzea ahalbidetzen dute. Gainera, ez da ahaztu behar Europa mailan deszentralizazioaren alde dagoen joera, lehiatzeko agintarien sare bat osatu nahian, Estatu kideetan zuzen zuzenean aplikagarri den 1/2003 (CE) Erreglamendua aplikaziorako. Adibidez, aipatzekoa da lehengo EEI 81.3 artikuluko salbuespenen sistema ezabatu egin dela, deszentralizazioaren alde joz, eta, ondorioz, orain banakako salbuespenak ez dira Europar batzordearen eskumen eskusiboa⁵⁹.

Kasu honetan, legegileak ez du Alemaniako eredurik jarraitu, beste batzutan egin arren. Alemaniako legea bere zarpigarren erreformarekin (Die 7. GWB Novelle), Europar Batasuneko 1/2003 (CE) Erreglamendua egokitu da, lehiako agintarien europar sare bat osatu asmoz⁶⁰. Hala aitortzen du bere sarreran (15, 16, 17, 18 eta 32. zenbakitan) eta 53. artikuluan. Europar Erreglamendua dio Estatuak agintari bakar bat edo gehiago ezar dezaketela EEI 81 eta 82 artikulua aplikatzeko eta hauek izaera administratiboa edo judiziala izan dezaketela.

Espainako kasuan, bada harrigarria Merkataritzako edozein epaitegik EEI 81 eta 82 artikulua aplikatzeko eskumena izatea eta autonomia erkidegoetako lehiaren defentsako organoek, berriz, ez⁶¹.

54. FRANCO I SALA, L., 2007, 93-102. orr., PAREJA, C. / VELASCO, C. *Comentario al artículo 15*,; MASSAGUER, J./ FOLGUERA, J./ SALA, J.M./ GUTIERREZ, A. (Zuzendariak) *Comentario a la Ley de Defensa de la Competencia*, Ed. Civitas, Madrid 2008; 435 orr.e.o.

55. Aldizkari ofiziala L 1, 3003.1.4.koa. 2004.05.01.ean sartu zen indarrean.

56. *Observaciones de los Órganos de Defensa de la Competencia de Cataluña al Borrador de Anteproyecto de Ley de Defensa de la Competencia*, www.cncompetencia.es.

57. Horretarako, Aurreproiektuaren 16.2 eta 18.3 artikulua proposatu zuten.

58. Horretarako, Aurreproiektuaren 20. artikulua proposatu zuten.

59. SALA ARQUER, 2008, 520. orr.

60. GWB § 50.ak ezartze du Bundeskartellamt eta Länder-etako agintariak eskumena dutela EEI 81 eta 82. artikulua aplikatzeko eta Alemaniako agintarien, Europako Batzordearen eta beste Estatu kideetako agintarien arteko harremanak antolatzen ditu. IMMENGA / MESTMÄCKER, 2007; 15. orr.; REHBINDER, 2007; 1567. orr.

61. FRANCO I SALA, 2007, 100. orr.; FERNÁNDEZ VICIÉN / MORENO TAPIA, 2008; 8. orr.

ALTZELAI ULIONDO, Igone. Zein ahalmen dute autonomia erkidegoek merkataritza lehia babesteko? *Eleria*, 18, 2009, 5-22

4.2.7. Arbitrajea

24.f) artikulua ezartzen du autonomia erkidegoetako organoek, beren eremuan, arbitraje lanak burutuko dituztela, zuzenbidezko nahiz ekitateko arbitraje lanak, agente ekonomikoek eskatuta, 60/ 2003 Legea, abenduaren 23koa, Arbitrajearen Legea aplikatuz eta baita legez ezarritako bestelako arbitraje lanak ere. Aukera hau ez zen jaso legearen egitasmoan, tramitazio parlamentarioan zehar sartu zen. Ordurako autonomia erkidego batzuk (Ad. Galiziakoak eta Madrilekoak)⁶² bereganatua zeukaten ahalmen hau, gero, 15/2007 LDL eman ondoren, Andaluziako Erkidegoak ere espresuki hartu duena⁶³.

4.2.8. Merkataritzako establezimendu handien irekitzea

CNC-ak merkataritzako establezimendu handien irekierari buruzko txostena emango du, xehekako merkataritza ordenatzen duen legearen arabera⁶⁴, establezimenduak eremu supra-autonomikoan edota Estatu mailan lehiatzeko baldintzak desitxuratzeko arriskua sor dezakeenean (15/2007 LDL 25. b) art.). Beraz, eremu hori intra-autonomikoa denean txostena lehiaren defentsako organo autonomikoek egin beharko dute. Aurreko 16/1989 LDL-ak ez zuen aukera hau espresuki ezartzen. Baina, hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiaren 124/2003, ekainaren 9.ko epaiaren ondoren praktikan jarri zuten zenbait organo autonomikok⁶⁵.

4.2.9. Lehia suspertzea eta txostenak

Aholkularitzako funtzioak eta lehia suspertzekoak 15/2007 LDL 25 eta 26 artikulutan aurkitzen dira, baina hauetan ez da organo autonomikorik aipatzen. Dena den, funtzio hauek izatea zilegi dela azaldu daiteke, berriz ere 1/2002 KL-ko lehenengo xedapen gehigarria joz⁶⁶. Lehenengo xedapen gehigarri horrek dio 16/1989 LDL-an TDC eta SDC-ri eginiko aipamenak autonomia erkidegoetako organoei egindakotzat ulertu behar direla, beti ere beren eskumenekoak diren prozedura eta ahalmen administratiboei buruzkoak direnean. Ahalmen administratibo guztien zerrenda luzea da, eta horien artean,

SDC-ren funtzioak aipatzerakoan, lehia suspertzea eta lehiari buruzko txostenak egitea aipatzen dira (16/1989 LdL 31. art.).

Gainera funtzio hauek organo autonomikoek jada burutzen dituzten funtzioak dira. Are gehiago, beren funtzio nagusienetarikoa bat lehia suspertzea dela esan daiteke, hain zuzen, gizartea lehiaren garrantziaz jabetzeko lan handia egiten ari baitira. Hala ondorioztatzen da lehiaren organo autonomikoek egin ohi dituzten urteroko txostenetatik⁶⁷.

Liburu Zurian bertan ere esaten da, Legearen aplikazioaz gain, lehiaren defentsako organoek merkatuen funtzionamendu eraginkorra sustatzeko funtzioa bete behar dutela, dagozkien ikerketa eta gomendioak eginez (Liburu zuria, 23. zenb.). Beraz, beren egitekoa da, ekonomiako sektore desberdinak eta administrazio publikoak aztertzea.

Beren lana da ere lehiaren defentsa gizarteratzea, lehia murrizten duten portaerak atzemanen eta hauen ondorio kaltegarriak ekiditeko edo gutxitzeko proposamenak eginez (Liburu Zuria, 211. zenb.). Horretarako organo autonomikoek badute abantaila bat, gertutasuna, alegia. Bertako merkatuen ezagupen sakonagoa eta zehatzagoa izan dezakete. Baina, hori bai, abantaila hauek lehiaren defentsarako onuragarri izango dira beti ere organo independienteak baldin badira. Elementu hau funtsezkoa da beren funtzioak modu egokian bete ahal izateko.

5. Ondorioak

Lan honetan autonomia erkidegoetako lehiaren defentsako organoek potentzialki dituzten eskumen exekutiboen azterketa egin da eta lehen ondorioa da 15/2007 LDL-arekin ahalmen horiek areagotu egin direla. Dena den areagotze hori nolakoa izan den zehaztu behar da, batzutan formala izan delako benetakoa baino gehiago. Oinarrian, aurreko eskumen banaketa mantendu da, nahiz eta oinarri horri elementu berri batzuk gehitu zaizkion deszentralizazioaren alde.

62. Ley 6/2004, de 12 de julio, reguladora de los órganos de defensa de la competencia de la Comunidad Autónoma de Galicia (DOG, núm. 141, de 22 de julio), artículo 3.3.g) y Ley 6/2004, de 28 de diciembre, de creación del Tribunal de defensa de la competencia de la Comunidad de Madrid (DOCM, núm. 310, de 10 de diciembre), artículo 9.5.j)

63. Artículo 8.1.c) del Decreto 289/2007, de 11 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía (BOJA núm. 245, de 14 de diciembre de 2007).

64. Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del Comercio Minorista.

65. FRANCO I SALA 2007, 99. orr., SALA ARQUER, 2008, 523. orr. Hauen iritziz, TDC-k ez zituen mota honetako txosten asko egin, organo autonomikoek egin zituztelako. Gainera, Kataluniaako kasuan, bere 2006.ko Estatu berrian eskumen hau aipatzen da espresuki (154.2 art.).

66. Lan honetako 3.1 atalean arrazonamendu berbera erabili dugu.

67. Autonomia erkidegoetako organoekin loturak eskura daude honako helbidean: www.cncompetencia.es.

Hala ere, azpimarratu nahi nuke 15/2007 LDL-an ez dela inon aitortzen autonomia erkidegoek, beren lurraldetar eremuan, legea aplikatzeko eskumen *exekutibo* guztiak dituztenik, bereziki enpresen kontzentrazio eta laguntza publikoen gaitan. Hori egin ordez, eskumen exekutibo horiek nola egikaritu behar dituzten ezartzen du. Esaten da, kasu bakoitzean, eskumen exekutiboa bere osotasunean autonomia erkidegoak egikarituko ote duen edota Estatuarekin partekatu behar izanez gero, bere partaidetza nolakoa izango den.

Baina, Konstituzio Auzitegiaren arabera, autonomia erkidegoek ez al dituzte eskumen exekutibo guztiak? Hain zuzen, ideia hori argi eta garbi adierazi izanak sistemari asko lagundu ahalko lioke oinarri sendo bat izan dezan. Sistema deszentralizatu batek elkarrenganako konfiantzazko oinarri bat eskatzen du. Horrek ahalbidetuko luke organo zentralak eta autonomikoak eraginkortasun handiagoz lan egitea. Europar Batasuneko eremuan, sare bat osatzeko ideia honek baditu urte batzuk. Hala azaldu zen *EEIko 85 eta 86 artikulua aplikatzeko arauen modernizaziorako Liburu zurian* (aldizkari Ofiziala 1999 C 132, 91. zenb) eta gero ideia hau gauzatu zen 1/2003 (CE) Erreglamenduan. Egia esan, lehiaren zuzenbideak deszentralizaziorako joera izan du.

Dena dela, aditzera eman denez, 1/2002 KL-tik hasi eta 15/2007 LDL-raino autonomia erkidegoetako agintarienganako mesfidantza oso nabarmena da. Horrelako testuinguru batek ez du sistema deszentralizatuaren funtzionamendu egokirik ahalbidetzen.

Azkenik, esan behar da ez dela neurri aproposa izan 1/2002 KL eta 15/2007 LDL bi *corpus* banandu mantentzea. Uste dut askoz ere egokiagoa izango zatekeela biek bakarra egin izan balitz, batez ere, 15/2007 LDL-ak eskumenak eta koordinazioa eraentzen dituzten arau batzuk badituelako. Biek bat egingo balute, sistematizazioari, kohesioari eta ziurtasun juridikoari mesedea ekarriko lioke. Agian horixe da, hain zuzen, legegileak burutu beharreko hurrengo urratsa, bi lege hauen bategitea.